



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

ESKOLA-PATIOAK HOBETZEKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOA GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: TERRAZAS CALZADA, YERAY.

ZUZENDARIA: DUQUE INGUNZA, AINARA.

2021

LABURPENA

Lan honen helburua Lehen Hezkuntzako eskola-patioa gaur egungo gizarteak eskatzen dituen berrikuntza eta aldaketa guztiei ahalik eta hoberen egokitzen den proposamen didaktikoa planteatzea da. Jolasa haurren garapenean eragin zuzena duen jarduera da eta funtzio zein eginkizun ezberdinak dituzte; haurraren garapen integralari ekarpen ugari eginez (Corraliza, 2000); jolastokia ekintza horretarako eskolak eskainitako eremua izanda. Espazio honetan futbola eta saskibaloia nagusitasuna eta horrek sortutako bazterkeria zein bidegabekeriak ikusita, Gasteizko eskola batek jolaslekua eraldatzeko proiektu baten beharra ikusi zuen. Eskolak proiektuari hasiera eman zion, aldaketa txikiak baino nabariak eginez eta nik jarraipena emateko proposamena luzatzen dut, kirol horien nagusitasunari alternatibak eskaintzea helburutzat dutenak, ikasleen arteko hezkidetzak, harreman ezberdinak, eta garapena sustatzea bidea izanda. Horrez gain, ikasleak naturarekin harremanetan hezi eta haztea bilatuko da eremu natural baten sorrerarekin.

HITZ GAKOAK:

Eskola-patioa, Berrikuntza proiektua, hezkuntza-sistema, baloreak, inklusioa, berdintasuna, garapen integrala, eremu naturala.

RESUMEN

El principal objetivo de este trabajo es plantear una propuesta didáctica que adecue de la mejor manera el patio de Educación Primaria a todas las innovaciones y cambios que requiere la sociedad actual. Jugar es una actividad que influye directamente en el desarrollo de la persona, la cual tiene distintas funciones (Corraliza, 2000); siendo el patio escolar el espacio que ofrece la escuela para dicha actividad. Visto el predominio del fútbol y el baloncesto, y la discriminación e injusticias generadas por ese predominio en este espacio, un colegio de Vitoria vió la necesidad de poner en marcha un proyecto para renovar y reorganizar el espacio. El colegio dió comienzo al proyecto con pequeños pero notables cambios y yo presento una propuesta para dar continuidad a dicho proyecto, proponiendo distintas alternativas con el objetivo de ofrecer opciones mas allá de los deportes predominantes mencionados, para ello partiendo del fomento de la cooperación, relaciones interpersonales y el desarrollo personal de cada alumno. Además de eso, con

la creación de una zona natural se buscará el crecimiento y aprendizaje de los alumnos en contacto con un entorno natural.

PALABRAS CLAVE:

Patio escolar, Proyecto de innovación, sistema educativo, valores, inclusión, igualdad, desarrollo integral, zona natural.

ABSTRACT

The main objective of this work is to propose a didactic proposal that best adapts the Primary School playground to all the innovations and changes required by today's society. Playing is an activity that directly influences the development of the person, which has different functions (Corraliza, 2000); the school playground is the space offered by the school for this activity. Considering the predominance of football and basketball, and the discrimination and injustices generated by it in this space, a school in Vitoria realised the need to set up a project to renovate and reorganise the space. The school started the project with small but notable changes and I am presenting a proposal to give continuity to this project, proposing different alternatives with the aim of offering options beyond the predominant sports mentioned, promoting cooperation, interpersonal relationships and the personal development of each pupil. In addition to this, the creation of a natural area will seek the growth and learning of the pupils in contact with a natural environment.

KEY WORDS:

Playground, Innovation project, educational system, values, inclusion, equality, integral development, natural area.

AURKIBIDEA

SARRERA.....	5
MARKO TEORIKOA	7
HELBURUAK	17
ESKOLA-PATIO BATEN ERALDAKETARAKO PROPOSAMENA	18
Ikastetxe baten eraldaketa-proiektua	19
Nire proposamen gehigarriak eta hobekuntza proposamenak	24
Rokodromoa dinamizatuz.....	24
Jolastokiko banaketa.....	25
Espazioaren banaketa	26
Eremu naturala.....	27
Eremu musikatuak	30
Horma musikatua.....	31
Material arduradunak.....	31
Zoru- eta horma- jokoak	32
Kirol alternatiboak	34
Jolas tradizionalak komunitatean	35
Baloia erabilera.....	35
Egun euritsuak	37
Irakaslearen papera	37
Produktu finala	39
ONDORIOAK.....	39
BIBLIOGRAFIA	42
ERANSKINAK	48
I Eranskina – Eskolak egindako aldaketak	48
II Eranskina – Eskola “planoa”	50
III Eranskina - Iturria	51

IV Eranskina - Balantza.....	52
V Eranskina – Zirkuituko elementuak.....	53
VI Eranskina – Zuhaitz motak.....	54
VII Eranskina – Sozializatzeko eremua.....	60
VIII Eranskina – Eremu naturala.....	61
IX Eranskina – Eremu musikatua.....	64
X Eranskina – Horma musikatua.....	64
XI Eranskina – Material taula.....	65
XII Eranskina – Zoru jokoak.....	66
XIII Eranskina – Horma-jokoak.....	68
XIV Eranskina – Eskola-patioaren antolaketa berria	69

SARRERA

Bizi garen gizartea momentu oro berritzen, aldatzen eta egoera berriei moldatzen dabil. Etengabeko moldaketa hori dela eta, gure eskualdeko hezkuntza sistemaren alderdi asko aztertu dira, hala nola, metodologia berritzaileak, hezkuntza sistema, irakasleen lana, ordutegiak, etxerako lan karga, zenbait ikasgaiei emandako garrantzia zein eskola patioak. Jarraian garatuko den lana aipatua izan den azkenengo alderdian zentratuko da.

Eskola-patioa, esan bezala, hainbat arrazoiengatik azken urteetan aztergai bihurtu den alderdia da, besteen artean, umeen garapenean duen garrantziagatik; horretan islatzen diren ezberdintasun eta diskriminazioagatik; helarazten diren baloreengatik, ikasleen egunerokotasunean duen garrantziagatik edo nahiz eta gizartea aldatu, aldaketa handiegirik jasan ez duen espazioa izateagatik. Autore ugari aurrera eramandako ikerketa anitzek emaitza argiak ondorioztatu dituzte umearen garapenean honek duen eraginari eta beharrezkoa den eraldaketari dagokionez, jarraian sakonki aztertuko direnak. Emaitzetan ondorioztatutako eragin hori ikasleen autonomiaren garapenean, sozializatzeko garatutako gaitasunean, erronkei aurre egiteko gaitasunaren garapenean, haien jolas-kultura areagotzean eta balore ezberdinen helarazte prozesuan, besteak beste, ikus daiteke. Ondorio horiek oinarritzat izanda eskola patioen azterketa egingo da, autore ezberdinek ikertutakoan funtsatuz, eskola-patioak duen garrantzia eta egungo jolastokiek behar duten eraldaketa azaltzeko. Eraldaketa hori beharrezkoa da egungo eskola-patio ereduak haurren garapenaren arlo ezberdinak alde batera uzten dituelako; eremu ugari diskriminazio eta bazterketa sustatzen baitute, hain zuzen ere, nagusitzen diren kirolek hartutako espazioagatik; genero arteko bereizketa eta bazterketa nabaria delako, betiere gizonezkoen nagusitasuna emaitza izanik; eta eskola proiektu eta jolastoki arteko harremana murrizta delako, eskola-proiektuak garatuz eta eraldatuz doazen bitartean jolaslekua aldaketak pairatzen ez dituen espazio izanik. Hori baliagarria izango da testuinguru egokia sortzeko eskola-patioa hobetzeko planteatutako proposamenak hobeto ulertzeko, Gasteizko eskola batek aurrera eramandako aldaketak oinarria izanda. Proposamen horiek egungo jolasleketan ematen diren bazterkeria, diskriminazio zein gaitzak alde batera uztea eta besteen artean, ikasleen garapen integrala, inklusioa eta autonomiaren alde egitea bilatuko dute.

Lehen Hezkuntza Gradu honek eskaintzen dituen praktikaldietan eskola ezberdinetako errealitatea behatzeko eta bizitzeko aukera izan dut; zeinetan, besteen artean, jolastorduen kudeaketa ezberdinak ikusi ditudan. Hiru praktikaldietan

partekatutako faktore bakarrak hurrengoak izan dira: eskolak jolastokia eraldatzeko proiektua edo neurriak martxan jarri dituela eta jolastokietan futbolak eta saskibaloiak duten nagusitasuna. Hori dela eta, azken urtean ezagutu dudana Berrikuntza Proiektua oinarritzat hartu eta hori hobetzeko proposamena aurrera eramatea erabaki dut. Nire haurtzaroan ordu asko eman ditut eskola-patioan eta egun, ikuspegi ezberdin batetik aztertuz gero, nire garapenerako onuragarriak izan zitezkeen elementu/espazio asko disfrutatzeke aukera eduki ez nuelaz ohartu naiz. Gizartea nola aldatzen ari den kontuan izanda, egungo haurrei hori gerta ez dakieken, garapen integral baten alde egiten duen proposamen inklusiboa eta edozein motatako diskriminazioa baztertzen duena planteatzea erabaki dut. Gizartea eboluzionatzen doan arren, nik jasotako heziketan faltan bota ez ditudan balore eta jarrera askoren hutsunea sentitzen dut gaur egun, proposamen honekin helarazten saiatuko naizenak.

Aipatutako lanketa burutzeko testuinguru egokia sortzearen teorikoki funtsatuko da jolastea, garapena eta eskola-patio zer diren zein duten garrantzia autore ezberdinen hitzetan oinarrituz. Testuinguru egokia sortu ostean, eskola batek aurrera eramandako proposamena ezagutaraziko da eta proiektu hori osatzeko proposamen gehigarri ugari planteatuko dira aurretik eraikitako testuingurua oinarria izanik. Amaitzeko, garatutako proiektuaren ondorioak adiera emango dira, hau da, planteatu diren aldaketan ondorioa azalduko da eta proiektua amaitu ostean sortutako hausnarketa jakitera emango da.

MARKO TEORIKOA

Kultura, Geertzen hitzetan (1988), gizarte bat edo gizatalde batek osatutako komunitatea ezaugarritzen duten bereizgarri espiritual, material, kognitibo eta afektiboen multzoa da. Kultura hitzak artea, musika, ospakizunak, teknologia, hizkuntzak, baloreak, eskubideak, ohiturak, usteak, eta abar barne biltzen ditu (Capretti, 2010). Brougerek 1981 eta 1998ean eta Elkoninek 1980an jolasa, duela denbora askotik hona, Geertzek 1988an aipatutako kultura baten bereizgarri horien parte dela esan zuten (Aizencang-en testuan aipatua, 2018). Baina 1938an, Johan Huzingak jolasa kulturaren adierazgarri ez zela aitortu zuen, aitzitik, kultura jolasaren aitortzea dela planteatuz (Linaza-ren testuan aipatu moduan, 2013). Hala ere, 1995ean Garcíak jolasa kultura baino lehen agertutako fenomeno dela ondorioztatu zuen, gizakiaren agerralditik kultura eta garai guztietan jolastu egin dela frogatu baita, are gehiago, lehenengo gizakiaren agerraldia baino lehen (Solís-en lanean aipatua, 2018). Jolasa kulturaren parte den edo ez ziurtatzerik ez dago baina, zer da jolasa?

Jolasak duen naturaltasuna eta konplexutasuna dela eta, oso zaila da honen definizio bakar bat zehaztea, ikuspegi eta errealitate ezberdinetatik aztertzen baita: ikuspegi psikoanalitikoak, psikologikoa, soziologikoa, kulturala edo biologikoa. (López 2010). Caurcel jaunak (2010, Burgaz-en testuan aipatua, 2016) aipatutako hitzei erreferentzia eginez, jolasa gizakietan dagoen ekintza da, normalean, haurtzaroarekin erlazionatzen dena. Jolasa, ordea, gizakiaren bizitza osoan zehar presente dagoen jardura da. Baina, esan bezala, hori ez da jolasaren inguruan dagoen ikuspegi bakarra. Jolasa ulertzeko eta ikusteko era urteekin batera aldatuz joan da. Carren teoriaren arabera jolasa hazkundearen estimulu gisa egiten du. Shiller jaunaren arabera, aldiz, jolasaren helburua gozamina da (Corraliza, 2000). Spencer (1985) eta Lázarusen (1883) jolasa ikuspegi psikologiko batetik aztertu zuten. Lehenengoak jolasa pilatutako gehiegizko energiaren ondorioztatulertzen zuten; bigarrenak, aldiz, gizakiak egunerokotasunean egiten dituen jardura neketsu eta zailetatik atseden hartzeko erabilitako ekintzatulertzen zuten, erlaxazioa eragiten baitu. Groosek (1898, 1901), ordea, instintuak guztiz garatuak egon aurretik hauek trebatzeko erabilitako ekintza bezala ulertzen du (López-en testuan aipatua, 2010).

Hurrengo mendean jolasa giza-kulturaren eboluzioarekin erlazionatzen da, jolasa medio hurrek gizadiaren historia esperimintatzen baitute (Hall, 1904; López-en lanean aipatua, 2010). Freuden (d.g) teoria traumatikoari erreparatuz gero, gizakiak bere

bultzada-instintibo oldarkor eta erotikoak asetzeko erabiltzen duen tresna da, jolasa bultzada horiek sortutako emozioak, eta errealitatean adiera eman ezin dituenak, komunikatzeko era izanik (López-en lanean aipatua, 2010).

Nahiz eta mende berdinean izan, ikuspegi psikologiko batetik aztertu eta jolasa aldi-kognitiboen garapenarekin erlazionatuta dagoen jarduera ludikoa dela esaten du Piaget ospetsuak (1932, 1946, 1962, 1966); haurtzaroan zehar sortzen diren jarduera ludiko anitzak moldatzen doazelako estruktura-kognitiboen garapenarekin batera (López, 2010).

70. hamarkadan, jolasa umeek haien kulturari dagozkion sentimendu eta jarrerak aurrera eramateko aukera eskaintzen duen tresnatzat ikusten dute Bruner (1984) eta Garveyk (1977). Azken batean, haurrek haien egunerokotasunean ikusten duten edozein jarduera jolasean irudikatzen dute, haien errealitatea fikziozko testuinguru batean islatuz (López, 2010)

Hala ere, kultura guztietan jolasa gizabanakoaren edo taldeen parte-hartzea eskatzen duen jarduera ludikoa da, norberaren garapenean eragina izanen duena. Rogoffek 1997an aitortu bezala (Aizencang-en lanean aipatua, 2018), bere ikuspegitik, jolasa alderdi-erlazional batetik ulertu behar da; hau da, jolastea ikaskuntza jarduera bat da, zeinetan parte-hartzaileek adostasun batean ezarri diren arauak ulertu eta barneratu behar dituzten. Horren ondorioz, helburu komun baten alde egin beharko dute beste parte-hartzaileekin sortutako elkarrekintza eta kolaborazioaren bitartez. Beraz, jolasa gizataldeen parte hartzea duen instantzia da, helburu bati zuzenduta egonik: jolastea. Jolasean ematen diren harremanak, ekintzak, taldekatzeak, rolak, eginkizunak, eta abar luze bat, testuinguru horretan baino ez dira ulergarriak, jolasa zein aberasgarria eta aldi berean, konplexua den adiera ematen duena (Aizencang, 2018).

Ikus daitekeenez iritzi, teoria eta ikuspegi ezberdin asko daude. Hala eta guztiz ere, autore gehienek bat egiten dute hurrengo baieztapenean: jolasa gizakiaren eta gehienbat, haurraren garapen fisiko eta psikologikoan eragin handia duen faktorea dela. Haurrak jolasaren bitartez garatzea lortzen dute, denbora asko eskaintzen baitiote. Delgadoren (2011) hitzetan, esploratzeko eta aurkitzeko ez ezik, elkarrekintza sozial eta komunikatiboaren alde egiten du jolasak. Horrez gain, esploratu eta aurkitu duten guztian oinarrituta mundu-fiktizio bat sortzen dutelako. Mundu fiktizio bat non haien izaera, trebetasun sozialak, gaitasun kognitiboak, emozionalak, afektiboak eta psikomotoreak eta

sormena garatzen dituzten. Eta hori gutxi balitz, bizipen ezberdinek gizartean eta besteekin elkarbizitzen eta komunikatzen irakasten diete (López, 2010). Nahiz eta argi izan jolasak duen eragina umeen garapenean, jolasa beste jarduera batzuetatik ezberdintzen dituzten ezaugarriak aipatu behar dira, 2006an Jimenez Rodriguezek aurkeztu zituenak:

- Jolasa libre da, bat-batekoa, errefortzu edo kanpo eragileengatik baldintzatuta ez dagoena.
- Jolasa adierazteko modu bat da.
- Jolasa gozamina eragiten duen jokaera da.
- Jarduera ludiko batean jokoan sartzen dira umearen jarrerak, nahiak, usteak eta gaitasunak, garapen fisiko, afektiboa, kognitibo eta motorrekin erlazionatutakoak.
- Jolasak testuinguru eta jarrera zehatz batzuk eskatzen ditu.
- Jolasa, askotan, problemen ebazpenarekin, hizkuntza baten ikaskuntzarekin, sormenarekin, eta abar, lotu izan dute.

Nahiz eta jolasa definitzea zaila izan, Jimenez Rodriguezek (2006) zehaztutako ezaugarriek jolasa identifikatzea errazten dute. Jolasa adin guztietan ematen den eta gozatzeko, esperimendatzeko, errealitatea esploratu eta ulertzeko, haien aurkikuntzak praktikan jartzeko eta besteekin harremantzeko balio duen jarduera da (Gallardo López eta Gallardo Vázquez, 2018). Aipatutako ezaugarriak kontuan hartuz, jolasa txikitan ematen den objektuen manipulazio "sinpletik", arau konplexuak dituzten jolasetara doa, tartean "ogibide batera jolastea" hartuz. Jolas guztiak garapenerako ekarpen garrantzitsua dira. Alabaina, azkenengo hamarkadan garapenerako psikologiaren arlotik, hain araututa ez dauden eta fikziozko egoerak irudikatzen dituzten zein jolas motorren ikerketak areagotu dira; garapenerako duten eraginaren ondorioz. Horren adierazle Bruner, Jolly eta Sylva 1976. urtean aurkeztutako bilduma dago, zeinetan $\frac{5}{71}$ artikulutik baino ez dira araututako jolasak. Bestalde, Garvey (1977), Elkonin (1980) edo Smithek (1981), besteak beste, Bruner, Jolly eta Sylva-kekin bat datoz haien argitalpenetan, garrantzia gutxiago emanez araututako joko-jolasei. (Linaza-ren testuan aipatua, 1986).

Jolasa haurren garapenean eragin zuzena duen jarduera da eta funtzio zein eginkizun ezberdinak dituzte; haurren garapen integralari hurrengo ekarpenak egiten dizkiote (Corraliza, 2000):

- *Arlo psikomotorrari* dagokionez, norberaren ezaugarriak zein aukerak ezagutzeko eta garatzeko abagunea eskaintzen dute: oinez ibiltzea, korrika egitea, arnastea, erlaxazioa, abiadura, malgutasuna, erresistentzia, indarra, oreka, koordinazioa, gorputz-eskemaren ezagupena eta espazio-denbora arteko kudeaketa. Bestalde, pertzepzioa garatea eragiten dute: entzumenezko pertzepzioa, ikusmen-pertzepzioa, ukimen-pertzepzioa, usaimen-pertzepzioa et pertzepzio-espaziala.
- *Arlo kognitiboari* dagokionez, ikaskuntza errazten dute eta bizipen anitzak eskaintzen dituzte, kasu askotan, problemak ebaztea eraginik. Arreta, memoria eta sormena estimulaten dute eta bizipenetan oinarritutako kontzeptuen barneraketa antolatzen dute. Areago, arrazonamendu logikoa estimulaten eta garatea ahalbidetzen dute.
- *Arlo emozionalari* erreparatuz gero, entretenimendua eta gozamena eragiten duten jarduera ludikoak dira. Haurrak libreki komunikatzeko eta adierazteko aukera izango du, sortutako mundu fiktizioa bere nahietara egokituz eta moldatuz.
- *Arlo sozialari* behatuz gero, elkarbizitzeko teknikak garatzen dira, hala nola, partekatzea, txandak errespetatzea edo enpatia. Jolasa sozializatzeko tresna ezin hobea da, komunikazioa eta harremana inplikatzeko baititu. Besteekin sozializatzea kezka eta estualdiak alde batera uzteko balio die haurrei.

Jolasik gabe gizakiak ezin ditu garatu aipatutako alderdi guztiak (Morote, 2008; Gallardo López eta Gallardo Vázquez-en lanean aipatua, 2018), beraz, garapen integralerako funtsezko jarduera deritzogu jolasari (Posada, Gómez eta Ramírez, 2005; Irwin, Siddiqi eta Hertzman, 2007; Carranza, Garriga eta Llinàs, 2011; Montero, 2017; Gallardo López eta Gallardo Vázquez-en lanean aipatuak, 2018).

Claparède (1983, p. 157) esandakoari helduz, jolasa eskola eta bizitza elkartzen dituen zubia da (Gallardo López eta Gallardo Vázquez-en testuan aipatua, 2018). Gure gizartean eduki eta hezkuntza transmisioaren ardurua gehiena eskolari egokitzen zaio, helburu horrekin antolatua baitago (Molins-Pueyo, 2012). Jolasaren bitartez hurrek inkontzienteki garapena eta heztea lortzen dute eta eskolan, aldiz, kontzienteki garapen hori lortzearen jarduten da. Beraz, eskola, jolasa bezala, haurren garapenean eragin zuzena duen faktorea da.

Haur Hezkuntzan jolasa estrategia motibatzailetzat eta erraminta pedagogiko gisa erabiltzen da, curriculumak hartzen dituen arlo ezberdinak lantzeko aukera eskaintzen

duena. Haur Hezkuntzako urteetan ikasleek ordu asko helburu bat duten jolas sinbolikoetan ematen dituzte eta beste hainbat, bat-batean eta naturalki sortutako jolas librean, garapenerako ekarpen anitzak dituztenak.

Lehen Hezkuntzan, aldiz, jolasak gero eta ordu gutxiago hartzen ditu curriculumak lantzeko erabiltzen diren tresnak beste batzuk baitira. Nahiz eta metodologia anitz egon, gaur egun nagusitzen den errealitatean jolasak ez du leku handiegirik gela barruko jardunean. Hori dela eta, jolasa denbora librearekin erlazionatu den ekintza da, atsedinari, gozamenari eta birsortzeari eskainitako espazioa izanda (G. López eta G. Vázquez, 2018). Eskola-orduetan ikasleek duten denbora libre hori jolastordua da, hau da, jolasteko eskaintzen zaien denbora-tartea da.

Egun, begirune handia hartzen ari den hezkuntza agente bat espazioa da, ikaskuntza prozesuan presente egoteaz gain, parte hartzen baitu (Gallego, 2017). Eskolen antolakuntzari dagokionez, orokorrean, eskolak bi espaziotan banatuta daude: barne- eta kanpo- eremua. Nahiz eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak zehaztutako *Oinarrizko Hezkuntza Curriculumean* ezer aipatzen ez den, kanpo-eremu hori geroz eta garrantzia handiagoa hartzen ari da hezkuntzan. Eskolen kasuan, kanpo-eremu hori jolastokia da. Historian zehar jolastokia era ezberdinetan ulertua eta antolatua izan den arren, gaur egun eskola-instituzio guztiek, nahiz eta txikia izan, jolastokia dute (Molins-Pueyo, 2012). Hala eta guztiz ere, eskola kopuru handi batean jolastokia ez da espazio-hezitzailetzat hartzen eta horrez gero, ez da helburu hezitzaile batekin antolatzen. Sarritan, eskolaren proiektu hezitzailea eta jolastokiaren funtzioa/antolamendua ez doaz batera eta jolastokia gelaren luzapen gisa oso gutxitan ikusten da (Marín, 2013).

2010ean Revista digital para profesionales de la enseñanza aldizkarian (Gallegoren lanean aipatua, 2017) Piageten hitzetan oinarritu ziren eskola-patioa definitzeko: eskolako kanpo-eremuak akzio eta esku-hartzerako espazioak bezala ulertu behar dira. Umeak inguratzen duen munduarekin elkarrekintzan aritzen da, estimuluei erantzuten die, problemak ebazten ditu... Momentu oro ematen den interakzio honek ikaskuntza errazten duena da. Beraz, Ritcherek 2006an esan bezala, kanpo-espazioak barne-espazioak bezain arretatsu eta kontu berdinarekin pentsatu eta aztertu behar dira (Burgaz-en lanean aipatua, 2016). Piagetek aipatutako pertsona-testuinguru arteko interakzio horiek anitzak eta ugariak dira. Haurarentzat testuingurua beste haurak ez ezik, espazioa eta erabili ditzaketen objektu ezberdinek (espazioak dituen objektu propioak zein haurak

ekarritakoak) osatzen dute eta hauen bitartez bere harremanak ezartzen ditu (Cantó, 2004).

Jolastokiak jolasa eta jarduera ezberdinak eman daitezen beharrezkoa den espazio fisikoa, sinbolikoa eta denbora espazioa eskaintzen digu. Eremu honetan ikasleek bizikidetasuna eta norberaren garapena gara ditzakete: elkarbizitzeko arauak errespetatzea, elkarriketaren bitartez gatazken ebazpenerako trebetasuna (Jarret, 2002; Salas eta Vidal-Conti-ren lanean aipatua, 2020), ardurei erantzutea, eta abar; eta autoestimua, emozioen kudeaketa, autoezagutza, erabakitzea, elkar-ulertzea, eta abar (Marín, 2013). Eremu honetan berdinen arteko elkarrekintza ematen da, García-Baceteren (2016) hitzetan, antzeko adina duten gizakien artean ematen den elkarrekintza dena, gizabanakoen bizitzan eta garapen emozionalean eginkizun garrantzitsua duena. Berdinen arteko elkarrekintza horretan garapenean dagoen pertsona horren bizitza pertsonal zein sozialerako garrantzitsuak izango diren ikaskuntzak bereganatzen dira; norberaren nia ezagutu eta onartzea, bulkaden kontrola eta sozializatzearen aldeko jarreraren garapena (Escobar, Trianes, Fernández eta Miranda, 2010; Muñoz eta Carmona-ren lanean aipatuak, 2020).

Kanpo espazio horretan ikasleek sozializatzen dute, integratzen dira, haien sormena garatzen dute, sortutako problemak ebazten dituzte, egoera ezberdinak esperimentatzen dituzte, eta abar.

Gainera, herrialde honetako hezkuntza sisteman ikasleek ordu asko ematen dituzte jolastokian, *1994ko ekainaren 29ko Ordenak* arautu bezala, Lehen Hezkuntzako ikasleen jolasaldiak goizeko tarteko orduetan kokatu eta 30 minutuko iraupena izan behar baitu (Salas eta Vidal-Conti, 2020). Zehazki, Lehen Hezkuntzako etapan jolastokiari eskainitako denbora hizkuntzei eskainitako denboraren berdina da (González, Guix eta Carreras, 2016). *Ekainak 26ko 142/2007 Dekretutik* ateratako ondorioak hurrengoak dira: Autonomia erkidego gehienetan, are gehiago, jolastorduak hartzen duen denbora Heziketa Fisikoari edo Atzerriko Hizkuntzari eskainitako denbora baino handiagoa da eta Natur Zientziei eta Gizarte Zientziei eskainitako denboraren berdina da (Molins-Pueyo, 2012). Beraz, urteko egutegiaren 1/10 jolastokiari eskaintzen zaio. (Salas eta Vidal-Conti, 2020) Hau da, jolastorduak ikasturtero 525 ordu hartzen ditu (Molins-Pueyo, 2012).

Gorputz-isiltasunaz nagusitutako ordutegi batean jolastordua ihes egiteko bidea bihurtzen da ikasle askorentzat, zeinetan gaztea protagonista eta bere ekintzaren jabe

sentitzen den (VACA, 2002); Denbora tarte horretan, muga batzuen barne, ikasleek jolasteko eta mugitzeko askatasun osoa dute. Askatasun horrek umeen arteko harreman interpersonalak sortzen ditu, hasiera batean, dozenteen eraginagatik baldintzatu gabekoak. Bonalen (1998) hitzei erreferentzia eginez, helduaren parte hartzea baxua da jolastoki tradizionaletan eta ikasleek eskolaren heziketa planteamenduaren kontra doazen balore eta jarrerak proiektatu ditzakete (Cantó-ren lanean aipatua, 2004). Kontuan hartu behar da pertsona bat gelan hezi eta trebatu ez ezik, baita heldu batentzat ikusezinak diren espazio horietan hezitzen dela ere. (Rodríguez eta García, 2009).

Jolasak, zehazki, garapenean dauden gizakiengan eragiten dituen onurak nabariak dira. Horrez gain, badago garapenean eragina duen beste alderdi bat, Rosa Sensaten (1921) hitzetan, haurraren garapen normalerako giro egokiena dena, natura (Bouzo-ren testuan aipatua, 2017). Ritscherekin (2006) bat eginez, gaur egun natura ezezaguna zaigu. Etxe zein ingurunean gero eta presentzia handiagoa du teknologiak, bunker teknologiko batean bihurtuz, testuinguruaz banatzen gaituztenak. Eremu hauetan seguru sentitzen gara baina, mugatzen eta itotzen gaituzte (Freire, 2011). Errealitate bat da gero eta denbora gutxiago ematen dugula naturatik hurbil, naturak dituen abantailak ez aprobetxatzeaz gain, horretatik urruntzeak sortzen dituen desabantailak pairatuz ; haien artean, *natura ezagatik sortutako nahastea* (Bouzo, 2017). Sarritan, horretaz babestea bilatzen da, beldurraren kultura izenarekin ezagututako fenomeno indartuz (Burgaz, 2016). Furedik (2008) esandakoa berreskuratuz, gaur egungo gurasoek gehiegi babesten dituzte haien seme-alabak, haien garapen egokia mugatuz eta oztopatuz (Collado y Corraliza) Gazteak babestearren naturatik urrundu nahi izateak ondorio negatiboak ditu garapenean: harremantzeko aukera gutxiago, autonomoki jokatzeko aukera gutxiago, gatazkak konpontzeko abagune eskasagoa, eta abar. Helduek teknologiarekiko duten mendekotasuna umeei transmititzen diete; horren ondorioa haurrek animaliak eta naturako elementuak zuzenean ikusi beharrean pantaila baten bitartez ezagutzea izanik (Burgaz, 2016). Naturatik urruntzeko dagoen joera horrengatik gaur egungo umeek ez dute zuzenean eta ingurumenean esperimintatuz ikasten, eta, beraz, ez dute munduari buruzko beren ideiak zentzumen-esperientziatik abiatuta eraikitzeko aukerarik. Eskolatik kanpo gertatzen denaz haratago, eskola barruan gertatzen dena beha dezakegu. Orokorrean, eskoletan ez dago eremu natural nahikorik ikasleen gozamina eta ikaskuntza bermatzeko. Txikitatik naturarekiko harremanetan eta hurbiltasunean hezteko aukera izatea funtsezkoa da; beraz, eskola-komunitateak aukera hori eskaintzen ez badu,

hezkuntza-sistema huts egiten ari da (Freire 2011; Bouzo-ren lanean aipatua, 2017). Ereku naturalean hezteko aukera izateak landare eta animaliekin harremanetan egoten erlaxaziorako eta hausnarketarako espazioa eskaintzea dakar, espazioarekin harremanetan egoten, sozializatzen eta norbanakoaren ekintzek ondorioak dituztela ikasiz. Garrantzitsua da txikitatik lasaitasun hori eta jarduteko aukera ezberdinak eskaintzen dituzten eremu naturalak eskuragarri edukitzea. Are gehiago, naturarekiko desloturak dakartzan desabantailak eta babes eza ez ezik, naturak eragiten dituen onurak kontuan hartzen badira: Jolas librerako eremu pribilegiatua da; etengabeko egin-desegitea, momentu oro aldatzen dagoen testuingurua da; ikasleek errealitateak lege eta arau batzuk ezartzen dituela ikasi, molda ezinak direnak; kontzentrazioa hobetzen dute; eskulanean trebatzen dira; haien abilezia areagotzen da; frustrazioa gainditzen dute; arrazoitzen ikasten dute; sormena lantzen dute, eta abar (Ritscher, 2006). Testuinguruak ekintza eta jolas aniztasuna bermatzen du eta libre zein autonomoki jarduteko eremu paregabea da. Aipatutako onura eta aukera guztiek ikasleari intimitaterako eta bere izaera eraikitzeko abagunea eskaintzen dio Burgaz, 2016). Gainera, eskoletan eraiki daitezkeen eremu naturalek bizitza, alaitasuna, kolore dibertsitatea, usainak, ikaskuntza librea, hiri-eremutik kontrastea egiten duten elementuak eta abar luze bat eskaintzen dute; ohiko jolastokien tristura eta urritasunari buelta emanaz. Beraz, eskoletako eremu naturalek eragiten dituzten onurak ondorio zuzena izango dute ikasleen garapenean. Are gehiago, umeek ez dute natura ezagutzen; hortaz, ezin zaie naturarekiko errespetua eta zainketa eskatu horretaz urrundu baino ez badira egiten, gustatzen eta ezagutzen dituzten gauzak baino ez dituztelako zainduko edo errespetatuko. Collado eta Corralizak (2016) esan bezala, naturarekin harreman zuzena edukitze ezak horrekiko inolako afekturik ez sentitzea eragiten du, ingurune naturalarekiko duten konpromezuan eragin negatiboa izanik (Burgaz, 2016).

Jolasgunea sozializaziorako, bizikidetzarako, gizarte berdintasunerako eta indarkeria ezarako espazioa izan beharko litzateke. Hala ere, egiten uztea eta ez ikusiarena nagusitzen den lekua denez, bereizketarako espazioa bihurtu ohi da, zeinetan diskriminazio harremanak nagusitzen diren eta ezberdintasunaren alde egiten den (García, Ayaso eta Ramírez, 2008; Luis Rico et al.-en lanean aipatua, 2020). Eskolapatioan sortutako interakzio eta egoera ludikoetan, Bonalek 1998an esan bezala, onartezinak diren jarrera eta baloreak ikus daitezke, hala nola, rol sexualak, botere harremanak, genero eta kulturen definizioa indartzen duten jarrerak, diskriminazioa,

bazterketa, eta abar (Cantó-ren testuan aipatua, 2004). Garapeneko etapa horretan ematen diren gatazkek edo jazarpen-jarrerek, haurrak estres egoerak balira bezala bizitzen ditu eta desoreka sozio-emozionalak sor ditzakete.

Subirats eta Tornék (2010) aitortu bezala: jolaslekuan sexu-ezberdintasuna nabarmentzen da, besteen artean, espazioa eta baliabideak ez direlako zuzen banatzen mutil eta nesken artean, ez da neutroa. Ezberdintasuna espazioaren banaketan eta antolaketan beha daiteke, jolas bereizgarriak eta askotan, bortitzak, orokorrean nesken eta mutil batzuen bazterketa eragiten duena (García, Ayaso eta Ramírez, 2008). Horrek batzuek garatutako jolasak baldintzatzen ditu, genero marka nabaria izanen dutenak, zer esanik ez sozialki eta instituzionalki duten balio ezberdintasunaz. Faktore horiek emakume-gizon arteko sailkapen hierarkikoa bultzatzen duten balore eta jarrerak barne biltzea eragiten dute, emakume-gizon arteko ezberdintasuna eta genero-kultura indartuz. Asinsek (1994) Fastekin (1990) bat egiten du espazioaren erabilerari buruz hitz egiterakoan. Espazioaren erabilera konplexutasun handiko aztergaia da, inkontzienteki burututako "jarrera" baita. Cantók (2004) egindako ikerketan lortutako emaitzak aztertu eta jolastokian behatutako bat-bateko jokabidean *genero ezberdintasuna* nabaria dela ondoriozta daiteke, beste autore askoren artean, Hoffman (1977), Brullet y Subirats (1990), Pérez (1994) eta Bonal (1998)-ekin bat eginez. Ezberdintasun hori aukeratutako jolas-jardueretan, okupatutako espazioan eta hartutako roletan nabaria da. Neska kopuru handia esparru murriztuetan eta mutilen kopuru txiki bat espazio zabaletan elkartzen dira (Rico, de la Torre, Escolar, Ruiz, Huelmo, Palmero eta Jiménez, 2020). Swainek (2000) ikasleek aurrera eramandako jarduerak aztertu eta jolastoki gehienetan futbola edo lehiakorrak diren beste jarduerak nagusitzen direla behatu zuen, jarduera horietan dagoen gizonezkoen nagusitasuna ondorioztatuz. Bestalde, emakumezkoen jardunean sozialki estatus hain altua ez duten jolasak erreproduzitzen dira, gehienetan, kooperazioa eskatzen duten jarduerak aukeratuz. Haien jarduna ikusezin bihurtzen da espazio murriztu eta marjinaletan aurrera eramaten baitituzte (Molins-Pueyo-ren lanean aipatua, 2012).

Espazioaren okupazioa alde batera utzita, gizarteak kontziente zein inkontzienteki helarazten dituen genero rolak eta estereotipoak daude. Gizarteak norbanakoari gizonezkoen eta emakumezkoen ereduak egokitzen dizkio (Ruiz, Moral, Llor eta Jiménez, 2018) eta askotan inguruneak zein eskolak indartzen ditu (Martínez, 2017). Haurrek jarrera eta iritzi horiek ikusi, entzun eta ondoren, barneratzen dituzte; sarritan, haien eguneroko harremanetan erreproduzitzen. Dozente/Helduen jardunak genero

estereotipo horiek ezabatze aldera egin behar du, horretarako erabilitako materiala, eskolan zehar jarritako kartelak eta argazkiak, helarazitako baloreak, bultzatutako harremanak, haien jarrera, eta abar berdintasunaren bila moldatuz (Bosada, 2018). Azken batean, eskolak rol ezberdinengatik adierazita datozen eredu, uste eta estereotipo hauek eraldatu ditzake, eskola espazio harmoniko eta justu batean bihurtuz, lehen mailako bitartekaritza pedagogikoa den heinean (González eta Cabrera, 2013; Lafuente, 2005).

Jolastokian aurkitu daitekeen beste diskriminaziozko jarrera bat berdinen arteko botere harremanak dira, bereizketa eragin ohi dutenak. Avilések (2006) hiru motatako eskola jazarpen ezberdintzen ditu: jazarpen fisikoa, fisikoa ez den jazarpena eta kalte materialak. Abusu horretan askotan aldagai sozio-kulturalak du eragina, haurrak bere egunerokotasunean/ingurunean entzuten dituen iritzi eta berriengatik elikatutako gorrotoaren ondorio izan daitekeena (Mateo, 2010). Hallen (1973) hitzak parafraseatuz: *“Que por más que lo intente el hombre, jamás podrá despojarse de su propia cultura ni prescindir de ella (...). La mayor parte del legado cultural yace oculto, y queda fuera del control de la voluntad”*. Pertsona baten kultura ez da ikusten baina jarrera, balore eta aurreiritzi batzuk darama harekin. Norberaren testuinguruak eta komunitateak balore eta estereotipo batzuk zabaltzen ditu; maiz, zuzenak ez direnak. Hala ere, hurrek zabaldutako iritzi hori bereganatzen dute eta ikusitako jarrerak errepikatzen dituzte. Aniztasun sozio-kulturala dagoen eskoletan, kulturaren araberrako jazarpena ohikoa da, errespetuzko balore egokiak sustatuz eta berdintasunean hezitzen konpondu beharrekoa.

Maila sozioekonomikoari dagokionez, maila sozioekonomiko altua duten familiek baldintza hoberenak dituzten itunpeko-ikastetxe zein eskola-publikoak aukeratzen dituzte. Horrez gain, zentroetan eskola-patioen (eta beste arloen inguruan) inguruko proiektu berritzaileak maila sozioekonomiko altuko familiak dituzten eskoletan baino ez dira martxan jartzen. Beraz, ez da hezkuntza kalitate bera eskaintzen (Molins-Pueyo, 2012). Arlo honetan familiek, komunikabideek eta sare sozialez erreproduzitako jarrera eta jokabideak eragin handia dute estereotipoen eta garapenean dauden haurren izaeraren garapenean (Luis Rico et al., 2020).

Nahiz eta ikerketa ezberdinek eta autore ezberdinek jolastokiak eta honetan gertatutakoak duen garrantzia aipatu eta frogatzen duten, askotan, eskolak duen espazio hau jazarpena, gatazkak, genero-kultura-arraza bereizketa, espazioen kudeaketa desegokia eta aniztasun ludikoaren urritasuna emateko lekua bihurtzen da (Bum, Marsh, Mitchell, Robinson, eta Willet, 2011; Cantó, eta Ruíz, 2005; Marín, Molins, Martínez,

Hierro, eta Aragay, 2011; Varela-ren lanean aipatuak, 2015). Gure gizartea eta are gehiago, hezkuntza mundua momentu oro eraldatzen dabil, berritzen. Eskola hezkuntza-beharretara egokitze aldera garapen adierazgarria ematen ari den arren, ikaskuntza esparru asko iraganean gelditu dira (Marín, 2013). Azpimarratu behar da egun aurrera eramaten diren berrikuntza proiektu anitzek ezin dutela alde batera utzi eskola-patioetan gertatzen dena. Beraz, proiektu horiek eskola barrutik zein gelek osatzen dituzten 4 hormetatik haratago dauden espazioen aldaketari ekin behar diote (Pedró, 2017); jolasaldiak aukera ezin hobea eskaintzen du bizikidetasuna hobetzeko, harreman interpersonalak ezartzeko edo mugimendua bultzatzen duten testuinguruak sortzeko, betiere, ikasle orori egokituak egonda (Rhea, 2018; Salas eta Vidal-Conti-ren lanean aipatua, 2020). Hala ere, soilik espazioa eraldatzeagatik ez da umeen ikaskuntza hobetzea lortuko, haien beharrak, interesak eta ezaugarriak zeintzuk diren kontuan hartu behar da; aitzitik, aldaketa testuingurutik kanpo egongo litzateke (Burgaz, 2016). Jolastorduak eskaintzen duen sozializatzeko aukera hori gero eta garrantzia handiagoa du, Jarreteak (2002) dioen bezala, gaur egungo gizartean isiltasuna eta bakardadea nerabeen artean dagoen epidemiarik larrienetarikoa bihurtzen ari baita (Salas eta Vidal-Conti-ren testuan aipatua, 2020). Bestalde, eskola-patioaren diseinua eta erabileraren eta eskolak duen proiektu-curricularraren artean ez dago inolako konexiorik, haientzat hezkuntzarako eta garapenerako esparrua ez dela agerian utziz (Marín, 2013). Gizarteak testuinguru hezitzailearen berrantolaketa eskatzen du, are gehiago, aktibo dagoena jarrera eta balore desegokiak sustatzen baditu (Cantó, 2004).

HELBURUAK

Lanaren helburu orokorra eskola-patioa gizarteak dituen eskaera berriei egokitzeko proposamena egitea da, hezkuntza-agente oso garrantzitsua dela jakinik. Horretarako, jolastokiak haurren garapenean duen eragina kontuan hartu beharko da, horren alde egiten duten berrikuntzak aztertuz eta proposatuz.

Era batean edo bestean, zuzenean edo zeharka, hurrengo helburu espezifikoak jorratuko dira aztertutako proposamenean eta planteatutako hobekuntzetan:

- Genero estereotipoak eta "ohikotzat" hartu diren jarrerak deuseztatze aldera:
 - ✦ Estereotipoak indartzen dituzten espazio-elementuak ezabatzea.
 - ✦ Genero marka nabaria duten espazioak ezabatzea edo berrantolatzea.
- Genero arteko sozializazioa sustatzea.

- Aniztasun ludikoa eskaintzea: joko-jolas zein kirol kultura areagotzea, aisialdirako aukera ezberdinak erakustea.
- Kuriositatea, intimitatea eta lasaitasuna eskaintzen duten espazioak proposatzea. Norberaren izaera garatzea eta garapen integralerako ekarpenak egitea helburu izanda.
- Ikasleen garapen integrala bermatzea: arlo soziala, psikomotorra, afektiboa eta kognitiboaren garapena.
- Estimulu anitz eskaintzea.
- Edozein motatako diskriminazioa edo bazterketa zein bidegabekeria islatzen eta indartzen duen espazioa ezabatu edo moldatzea, hala nola, bazterketa, bidegabekeria soziala, eta abar.
- Kooperazioa eta lehiakortasun arteko oreka bilatzea: jolastorduan sortutako gatazkak murriztu eta ikasleen arteko kooperazioa sustatze aldera.
- Gazteek naturatik gero eta aldenduagoak hezten direla kontuan hartuz:
 - ✦ Umeei naturarekiko duten harremana, zaletasuna eta konexioa areagotzea.
 - ✦ Naturarekiko harremanetan hezteak.
 - ✦ Ingurumenarekiko errespetua, balore ezberdinak eta zainketa garatzea.
- Irakasleek eta eskolak jolastokiarekiko duten ikuspegia zein rola aldatzea.
 - ✦ Irakasleen parte-hartzea ugariagoa izatea.
 - ✦ Curriculum-eskola proiektu/diseinu arteko kohesioa bilatzea.
 - ✦ Bermatu beharreko 4 alderdi:
 - Jolasteko aukera eskaintzea: materiala eta espazioa eskainiz.
 - Jolasten uztea: dena kontrolpean ez
 - Haiekin jolastea: botere rola alde batera uztea.
 - Jolastera bultzatzea
- Helarazitako baloreak pertsona oroien eskubideen aldekoak izatea.
- Ikasle guztien inklusioa bermatzea, jatorria, arraza, maila sozio-ekonomikoa, kultura edo beharrak zeintzuk diren axola gabe.
- Kalitatezko hezkuntza jasotzea, eskola-patioa barne egonda.

ESKOLA-PATIO BATEN ERALDAKETARAKO PROPOSAMENA

Atal honetan Gasteizko Itunpeko Ikastetxe batek jolastokia berritzeko aurrera eramandako proiektua azalduko da. Honetan proiektua hasieratik orain arte aurrera

eramandako aldaketa guztietara azalduko da, tartean emandako urrats eta egindako aldaketa guztiak aipatuz. Horien artean ikasleei egindako galdetegiak, kanpotik jasotako laguntza, egindako aldaketak, eta abar azalduko dira.

Ikastetxe baten eraldaketa-proiektua

2018. urteko ekainean, Gasteizko Itunpeko Ikastetxeko irakaslegoak *Ikastetxetik Auzora* elkartearen eskutik **formakuntza bat jaso** zuen. Formakuntza horretan eskoletako jolastokietan berdintasuna nola bermatzen den izan zen jorratutako gaia. Horren ondorioz, udan zehar, irakasle batzuek berdintasuna sustatzen duten jolastoki ezberdinen inguruko **informazioa jaso** zuten: proposamenak, antolakuntza ezberdinak, erabili daitezkeen materialak, eta abar. Prozesu honen helburua ohikoak diren jolastoki tradizionalak alde batera uztea eta anitzagoa den espazio bat eskaintzeko ideiak eta informazioa biltzea zen.

Hurrengo ikasturtean (2018-2019), ***Eskola-Patio Taldea sortzen da*** ikastetxearen jolastokia berritzeko helburuarekin, irakasle ezberdinek osatutakoa. Ikasturte honetan **proiektua ikastetxearen *Urteko Plangintzan txertatzen*** da. Proiektu honen helburua ikastetxeak duen jolastoki zabala erabat eraldatzea da. Momentura arte ikastetxearen eskola-patioaren antolaketan eta praktikan futbola eta saskibaloiak nagusitzen zuten. Praktika hauek bazterketa, diskriminazioa, inklusio eza eta mota anitzeko gatazkak sortzen zituzten. Arrazoi horiengatik, ikastetxeko zuzendaritza zein irakasle taldeak onera aldatzea eragingo zuen proiektua zela ondorioztatu eta aurrera eramatea erabaki zuten. Jolastokiak ia eremu guztia hartzen duten 5 futbol zelai eta saskibaloiko 2 kantxa ditu, bestelako jarduerentzako esparru mugatu bat utziz. Antolakuntza horrek kirol horien nagusitasuna indartzen du eta, are gehiago, ikasleen aniztasun ludikoa murriztera eta genero ezberdintasunak indartzera jotzen du, ikasle askok pairatzen duten bazterketaz ez hitzegiteagatik.

Prozesu osoan zehar Lehen Hezkuntzako eta Ikastetxeko Ikasketa Burua eta Zuzendaritzaren esku-hartzea etengabekoa eta garrantzia handikoa izan da. Horrez gain, **ikasleriak parte-hartze aktiboa** izan du prozesuan zehar, azken batean, haiek erabili eta haientzat bideratuta dagoen espazioa baita. Ikastetxeko Eskola-Patio Taldea sortu eta ***Dunak Taldea elkartearekin elkarlanean*** aritzea erabakitzen da, Lehen Hezkuntzako etapan zentratuz, berdintasuna eta hezkidetzaren lortzearen. DUNAK Taldea HiriaKolektiboko eta arkitektoak diren hiru kide eta kolaboratzaile batek osatutako

elkartea da, hirigintza eta parte-hartze feminista oinarrizko baloretzat duena, hiri feministen eraikuntzari buruz hausnartzera bultzatzea bilatzen dutenak (Dunak Taldea, 2017).

Lehenik eta behin, Dunak Taldearekin batera, irakaslegoari **prozesua azaltzeko eta eurak sentsibilizatzeko hitzaldia** aurrera eramaten da. Solasaldi honetan irakasleek haien ikuspegia adiera eman eta proposamenak planteatzeko aukera izan dute, nahiz eta Eskola-Patio Taldearen barne ez egon, prozesuaren parte izanik.

Ondoren, jolaslekuan ematen den **bizikidetzarako arau berriak ezarri** dira Lehen Hezkuntzako irakasle guztien artean. Arau hauek berdintasuna, edozein motatako diskriminazioaren aurkako tolerantzia eza, inklusioa, hezkidetzeta, errespetua, kultur aniztasuna eta, besteen artean, jarrera aktiboaren alde egiten dute.

Prozesuaren hurrengo urratsetan ikaslegoaren parte-hartzeari hasiera ematen zaio. Hasteko, **ikasleek jolastokia aztertu** dute anonimoki eta banaka erantzun behar izan duten hurrengo galdetegiarekin:

- *Non jolasten dute mutilek? Eta neskek?* (Galdera honi erantzuteko ikasle bakoitzari jolastokiaren planoak banatu zaizkio eta koloretako gometsak erabiliz, mutilek eta neskek okupatzen duten espazioa markatu dute.)
- *Zertara jolasten dira?*
- *Gatazkarik izan duzu?*
- *Nola sentitzen zara jolastokian?*

Galdetegia eta honetan eskuratutako emaitzak aprobetxatuz ikasleek hausnarketa egin dute. Ondoren, tutoreek **berdintasunari buruzko sentsibilizazio lanketa** burutu dute ikasleekin, haien hausnarketan ondorioztatutako horretatik abiatuz.

2018-2019 ikasturte hasieran hasitako prozesuak, puntu honetan urte erdia zeramatzan jada. 2019. urteko otsailean, **bi egunetako jolastordua dinamizatzea** erabaki zen. Horretarako, jolastordua dinamizatu aurretik, tutoreek aukera ezberdinak eskaini zizkieten ikasleei, futbola eta saskibaloitik (gehien ematen diren kirolak) haratago aisialdirako beste aukerak daudela erakustearren. Eskainitako abagune zabal horretatik ikasle bakoitzak hiru jarduera aukeratu behar zituen; ondoren, eskuratutako emaitzetatik abiatuz txoko ezberdinak antolatu eta dinamizatzeko tutore, irakasle espezifiko eta teknikoaren artean. Bozkaketan ospe gehien izan zuten jarduerak hurrengoak izan ziren:

klarionekin margotzea, dantza egitea, musika entzutea, *Twister*, malabareak, soka-saltoa, mahai-jolasak, irakurtzea, marraztea, esku-pilota, zapitxoa, *polis eta kakoak*, lagunekin hitzegitea, *errondoak*, *bote-bote* eta harrapaketa. Ikus daitekeenez, aniztasun handiko jarduerak burutu ziren; ikasleei aniztasun ludikoa eskainiz eta beti ematen diren kirolak alde batera utziz, ondo pasatzea dagoela erakutsiz. Dinamika hauekin eskolak bi helburu zituen: alde batetik, egun horietatik aurrera ikasleek era autonomoan jardutea, txoko bakoitzean burutzen den jarduera jakinik. Beste alde batetik, ikasleek materialaren eta txokoen arduradunak izatea, horretaz arduratzen diren maila ezberdinetako ikasleak ezarriz. Horrez gain, jolastokia txokoka antolatzea eta etorkizunean, txoko hauek futbola eta saskibaloiarekin elkar-bizitza lortuz. Azkenik, maila ezberdinen arteko nahasketa bermatzea, honek dituen onura anitzak kontuan hartuz.

Dinamizatutako bi egun horien ostean **ikasleen hausnarketarako momentua** zen. Dinamika berriak frogatu ostean haien iritzia eman, bizitakoaren inguruan hausnartu, nola sentitu diren adiera eman eta ohiko jolastorduekin alderatzeko eskatu zitzaizen; etorkizuneko eraldaketetan haiek aipatutako guztia kontuan hartzearen. Hurrengo hilabetean, ikasleen iritzia ezagutzen jarraitze aldera irakasleek galdera berri bat bota zuten haien geletan: "*Zer gustatuko litzaieke gure neska eta mutilei egitea jolastorduan?*". Galderari erantzuna emateko ikasle bakoitzak bere patio idealaren marrazkia egin zuen. Horretarako, aurretik egindako lanketa ezberdinak zein irakasleek erakutsitako beste eskoletako proposamenak eredu gisa zituzten.

Ikasleek aipatutako proposamen guztietatik, babes gehien izan zituztenak eta bideragarriak zirenak apuntatu zituen Eskola-Patio Taldeak. Ideia horiek zein Eskola-Patio Taldea osatzen duten kideen ideiak jolastokian espazio-material antolakuntza eta kudeaketa berri bat burutzeko kontuan hartu ziren; betiere, Dunak Taldeko aholkulariaren orientabideak jarraituz. Eraldaketa horretarako **ADI! Bulegoa taldearekin elkarlanean** aritu ziren, ADI! Bulegoak hiri-eremua, arkitektura eta diseinuaren esparruko prozesuak diseinatze eta ezartzeko aholkularitza eskaintzen duen enpresa baita.

Ikasturte horren amaierarekin batera jolastoki anitz eta berdintasuna sustatzen duena lortzeko **eraldaketari ekin** zioten, esan bezala, ADI! Bulegoarekin elkarlanean. Lehenik eta behin, 1. zikloko ikasleen artean jarduerarik arrakastatsuenetarikoa bat zoru-jokoak izan ziren. Horretarako, margolaria den ikastetxeko ama baten lana ezinbestekoa izan zen. Lehenengo urrats honetan gai ezberdinak jorratzen dituzten **lau jolas margotu** ziren, [I eranskinean](#) ikusgai daudenak:

- ... *Planetari salto*: ikasleek planeten izenak, ordena eta haien arteko distantzia birpatsatzeko aukera dute jolastu bitartean. Horrez gain, jauziak praktikatu ditzakete.
- *Rayuela olagarroa*: hankamotz salto egiteko jolas tradizionala.
- *Sugeak eta eskailerak*: dadoa jaurti eta ateratako zenbakiaren arabera ikasleak mugitzen dira.
- *Hitz-asmatzailea*: arrain batetik bestera saltoka mugitu behar dira ikasleak; arrain bakoitzari bokal bat dagokio, hori erabiliz hitz bat asmatu.

Bigarren urratsa [Ieranskinean](#) ikus daitekeen **txoko-lasaiaren eraiketa** izan zen. Txoko hau ikasleen erlaxaziorako bideratuta dago: irakurtzea, idaztea, mahai-jolasak, margotzea, hitz egitea, hamaiketako/askaria hartzea, ikastea, Legoak muntatzea, eskulanak... Eremu honetan adin ezberdinetako ikasleak elkartu daitezke, adin ezberdineko umeen arteko sozializazioak dakartzan onurak sustatzearren, haien artean irakatsi zein ikasi ditzaketen gauzen aniztasuna eta garrantzia baloratu.

Hirugarren eraldaketa euskal kulturaren finkatuta dagoen mendizaletasunarekin erlazionatuta dago, eskaladarekin, hain zuzen ere. Ikasle zein Eskola-Patio Taldearen artean arrakasta handia izan zuen proposamena izan zen, beharbada honek eskaintzen dituen aukera ezberdinengatik, motrizitatea lantzeko ematen duen aukeragatik edo esan bezala, euskal kulturaren dagoen mendizaletasuna dela eta. Proposamen hori Lehen Hezkuntzako maila guztientzat eskuragarri den **rokodromoan** islatu zen, 2019-2020 ikasturtearen hasieran instalatu zena (ikus [Ieranskina](#)).

Azkenik, ikasleen hezkuntzan garrantzia handia duen faktore baten agerpena beharrezkoa izan zen azkenengo eraldaketa aurrera eramateko: familia. Nahiz eta gaur egun pertsona askoren ikuspegian heziketa eskolari egokitu beharreko ardura den; haurren heziketan komunitate guztiaren esku-hartzea ezinbestekoa da, haien arteko elkarlanak garrantzia handia hartuz. Urrats honen helburua jolastokiko horrei kolorea ematea ez ezik, mezu hezigarriak eta eskolaren filosofia zein proiektu ezberdinak txertatzea zen (hezkidetzak, inklusioa, ikaskuntza kooperatiboa, bizikidetzak, Agenda 21, eskola-ortua, *KIVA*, eta abar); betiere, LHko ikasle guztiekin batera prozesu parte-hartzailea izanik, zeinetan arteari balioa ematen zaion, ikaskuntza kooperatiboa sustatzen den eta jolastokia alaitzen den. Ekintza honetan familien parte-hartzea borondatezkoa zen eta zorionez, jarraipen handia izan zuen. **Muralaren pintaketa** txandaka antolatu zen eta aukera aprobetxatu zen ikaskuntza kooperatiboa aurrera eramateko. Seigarren mailako

ikasleek lehenengo mailako ikasleak laguntzen zituzten; bostgarren mailakoek bigarren mailakoak; eta laugarren mailakoek hirugarren mailakoak.

Azkenengo urrats honekin orain arte planeatutakoaren barne zeuden eta martxan jarri diren dinamika zein burututako eraldaketa guztiak adiera eman dira. Ikastetxeak beste hainbat helburu zituen 2019-2020 eta ondorengo ikasturteetan abian jartzeko. Hala ere, 2020. urtean, egun sufritzen jarraitzen dugun **pandemia mundialak gure bizitza bat-batean astindu zuen eta bidean, ikastetxearen proiektua eten zuen**. Nahiz eta hainbat ideia eta helburu hastear eduki, bertan behera utzi eta geldirik jarraitzen dute. Baina ikastetxeak ez du amorerik eman eta irakasle guztien esfortzuari esker proposamen batzuk martxan jarri dituzte eskola-patioa egungo egoerara moldatzearen, proiektu honetan lortu nahi ziren balore eta helburuak aiantzi barik.

Pandemiara egokitutako proposamenak hurrengoak izan dira: Hasteko, *Patios y Parques Dinámicos* elkartearen eta irakasleen arteko elkarlanari esker egun batzuetan jolastorduak dinamizatu dituzte, inklusioa helburutzat duten jolas ezberdinak garatuz, ume guztiek jolasteko eta sozializatzeko aukera berdina izan ditzaten, norbanakoaren gaitasunak eta beharrak faktore eragilea izan gabe. Ondoren, kontakturik eta partekatutako materialik gabeko jolasak aurkeztu zaizkie ikasleei, jarraitu beharreko neurriak errespetatuz jolasteko aukera ezberdinak ezagutu ditzaten: soka-saltoa, zirkuituak, zoru-jokoak, lasterketak eta txingo afrikarra, besteak beste. Hirugarrenik, 2019-2020 ikasturtean hasiera eman eta aurten berreskuratutako ekintza: txoko musikalak. Asteazken eta ostiraletan, zehaztutako txokoetan, bozgorailu bana kokatzen da, Eskola Patio Taldearen iragazkia pasa baina, ikasleek eta irakasleek aukeratutako abestiekin. Musikari esker ikasleek dantza egiteko, abesteko, koreografiak asmatzeko edo, soilik, musika entzuteko abagunea dute. Azkenik, aipatutakoaren harira, ikasle zein familiek musika entzutea dute eskolara sartzeko itxaroten duten bitartean. Beraz, goizero, 8:40etatik 9ak arte bozgorailu bat kokatzen da jolastoki erdian. Abian jarritako proposamen hauekin egoera konplexu honi alaitasun eta positibotasuna emateaz gain, ikasleen ongizate emozionala zaintzea eta estimulu alaiak eskaintzea bilatzen da.

Aipatutako proposamen eta urratsez gain, ikastetxea jolastokian eragina duen proiektu batean murgilduta dago. Proiektu hori **eskola-baratzarena** da. Proiektu honetan jolastokiaren eremu bat baratze bat sortzeko erabili da. Proiektu honekin ikasleek natura eta landa eremuarekin zerikusia duten askotariko bizipenak izan ditzakete, ingurune horrekin ditugun loturak eta menpekotasunak ulertzea eta ingurumenaren zaintzarekin eta

harekiko erantzukizunarekin lotutako jarrerak eta ohiturak praktikan jartzea. Horrez gain, umeei Ingurumen Hezkuntzako helburu eta edukiekin bat datorren jarduna garatuko dute, ingurunean heziz, horri buruzko hezkuntza jasoz eta horren aldeko jarrera garatuz. Helburu eta eduki horiek garatzeko eta eskola-patio naturalizatzeko helburuarekin ikasleek zuhaitz landatu dituzte horren inguruan. Ikasleak asko inplikatu dira eta zuhaitzen zainketa oso serio hartzen dute, gelak komunetan duen zerbait delako.

Nire proposamen gehigarriak eta hobekuntza proposamenak

Orain arte eskolak jasandako aldaketa nolakoa izan den deskribatu eta horretan oinarrituz gero; jarraian, hainbat proposamen planteatuko dira, eraldaketa prozesu horretan txertatuz gero ikastetxeak dituen helburuak lortzearren lagungarriak izango direnak eta ikasle ororen garapen integralean ekarpenak egingo dituztenak. Ikastetxeak abian jarritako eraldaketak eta hurrengo proposamenek eskola-patioa erabat aldatzea eragingo dute. Hala ere, kontuan hartu behar da ikastetxeak eraldaketa proiektua eten egin behar izan duela egun bizi dugun egoera pandemikoagatik.

Rokodromoa dinamizatuz

Aurrera eramango liratekeen bi proposamenek ikastetxeak Dunak Taldearekin batera abian jarritako bi proposamenekin bat egingo lukete.

Lehenengo proposamena ikastetxeak eraikitako rokodromoa dinamizatzea du helburu, eta Gorputz Hezkuntzako irakasleen esku-hartzea eskatzen du, aipatu bezala, eskolan aurrera eramandako eraldaketak komunitate osoaren inplikazioa eskatzen baitu. Kasu honetan, Gorputz Hezkuntzako saio bat rokodromoan aurrera eraman daitezkeen dinamika-erronkak ezagutarazteko eta ikasleen grina pizteko erabiliko da, askotan, rokodromoa eraiki eta ikasleei inolako dinamika/erronkarik planteatzen ez zaiolako, horren erabilera mugatuz. Irakasleak, besteen artean, hurrengo erronkak proposatuko ditu:

- Ikasleak talde txikietan (bikote, hirukote, laukote) elkartuko dira. Ume batek 3 mugimendu egingo ditu; hurrengoak, kideak egindako 3 mugimenduak imitatu eta beste hiru gehituko ditu. Hurrengoak, kideek egindako 6 mugimenduak imitatu eta beste 3 gehitu beharko ditu. Prozesu bera jarraituko litzateke rokodromoa horizontalki gurutzatu arte.
- Rokodromoak dituen heldulekuak koloretakoak direla aprobetxatuz, umeei alde batetik bestera kolore zehatz batzuk erabiliz gurutzatzea proposatuko zaie.

Hurrengo saiakeran, kolore bakarria erabiltzea edo kolore bateko heldulekuak ez erabiltzea planteatuko da.

- Rokodromoa alde batetik bestera kideak esandako gorputzeko atala erabili barik gurutzatzea, adibidez, ezkerreko eskua erabili gabe.
- Klasekideekiko konfiantza garatze aldera, bikoteka elkartu eta helburua rokodromoa alde batetik bestera gurutzatzea izango da. Bidean, aurreko puntuetan aipatutako erronkak errepikatu ahalko dituzte, baina kasu honetan berezitasun bat egongo da: horman dagoenak begiak itxita mantendu beharko ditu eta bere kideak emandako argibideetaz fidatu beharko da.

Aipatutako erronka horiek era eskematikoan plastifikatutako kartel batean islatu eta rokodromo parean jarriko dira. Era honetan ikasleek rokodromoa erabiltzeko modu ezberdinak ezagutuko dituzte; ahaztuz gero, kartelean begiratzeko aukera izango dute eta irudimena erabiliz, erronka berriak asmatuko dituzte.

Rokodromoa umeak asko motibatu ditzakeen elementua da, umeen gaitasunak estimulatu, indartu eta sortu ditzakeena. Hori gutxi balitz, rokodromoak ikasleak ingurumenera hurbiltzen ditu (mendia, eskalada, lekualdaketak, jauziak, oreka, gihar tonua, sozializatzea, gorputz-eskema ezagutzea eta erronkak gaintitzea) eta igoera zein mugimenduen sena garatzeko aukera eskaintzen du. Eremu honek planteatzen dituen lanketak eta garapenak anitzak dira, ikaslearen garapenean eragin zuzena izango dutenak. Hala nola, segurtasuna areagotzea, beldurraren galera, autoestimua eta nork bere mugak gaintitzea/lortzea, nork bere gorputzaren autokontrola garatzea eta besteekiko ardurak eta laguntza sustatzea. Garrantzia handia hartzen du norberarekiko zein laguntzen dagoen kidearekiko konfiantza, adiskidetasun jarrera zein laguntza-errespetu baloreak agerraraziko dira; harreman interpersonal bereziak sortuz (Domínguez, 2020).

Jolastokiko banaketa

Moldatu beharreko lehenengo "araua" edo antolakuntza-neurria jolastokien banaketa da. Zikloka edo mailaka egindako espazioaren banaketa alde batera utzi behar da. Hori ahalbidezaren, zaintzako irakasleak eremu ezberdinetan banatu eta ikasleak ikastetxeak duen eremu osotik mugitzeko baimena izatea egokiena litzateke. Era honetan ikasleek adin ezberdinetako kideekin elkarrekintzan arituko dira, berdinen arteko ikaskuntza eta irakaskuntza bermatuko da eta jolastorduan aurrera eramandako ekintzak askoz aberasgarriagoak izango dira. Adin ezberdineko ikasleen arteko harremanek baloreen transmisioa eta transmisio soziokulturala errazten dute eta (Molins-Pueyo,

2012). Argi dago ikaskuntza prozesu guztietan norberaren barruan mekanismo ezberdinak aktibatzen direla, zeina ikasleen arteko elkarrekintza dela eta martxan jartzen diren, ezagutzen barneraketa eta jarrera, abilezia eta balore ezberdinen garapena errazten (Sánchez, 2015). Berdinen arteko ikas-irakaskuntza hori dela eta hurrengo balore eta alderdiak garatzen dira: enpatia, kideak sentitzen duena hobeto ulertzeko; asertibitatea, iritzi bat errespetuz defendatzeko; entzute aktiboa, arreta gabeko entzutea ez delako esanguratsua izango; pazientzia, berdinen arteko ikaskuntzan areagotzen dena; hizkuntzaren doiketa beste kidearen adina/ezagutza mailaren arabera, mezua ulergarria izateko; pertsona bakoitzaren behar eta ezaugarriekiko egokitzapena, memoria azaldu edo galdetu behar dena gogoratzeko; ikaskuntza esanguratsua aurretiko ezagutza ikaskuntza berriekin elkartzean; besteak laguntzean autoestimua hobetzen da eta motibazioa, prozesu osoan zehar presente dagoena (Campos, 2018). Berdinen artean emandako elkarrekintza honi esker gizakiak paper eta rol ezberdinak onartzen eta interpretatzen ikasten du, heziketa edo sozializazioaren atal garrantzitsua direnak (Varela, 2015).

Espazioaren banaketa

Ikastetxe gehienetan erabilgarri den kanpo-espazioaren ehuneko handi bat nagusiak diren kirolek hartzen dute (Barandiaran et al., 2015); eskola honen kasuan, [II eranskinean](#) beha daitekeen moduan, 5 futbol-zelai eta saskibaloiko bi kantxa daude. Nagusitasun hori desagerrarazteko, 2 futbol zelai eta saskibaloiko kantxa bakarria erabilgarri uztea egokiena litzateke, libre geratzen den espazio hori proposatuko diren beste ekintzetarako erabilgarri utziz. Erabilgarri utzitako futbol zelaietako bat fosoa da, ikastetxeko Kirol Elkarteak bere taldeekin antolatutako ekintzetan erabiltzen duelako, polikiroldegiaren gehigarri gisa. Bestalde, jolastokiko eremu zabalean dauden 4 futbol-zelaietatik bakarria mantenduko zen; eta aterpean dauden bi saskibaloiko kantxetatik bakarria. Bi futbol-zelai horiek eta saskibaloiko kantxa bakarria mantentzea egokiena litzateke, proiektuak aurrera egin ahala eta honen eragin positiboa nabaria den heinean, futbola eta saskibaloia beste jarduera eta espazioekin elkar-bizitzea egokiena litzatekeelako. Hala ere, bide luzea dago hori lortu arte, beraz, zelai horiek ostentzea eman beharreko lehenengo urratsa da. Modu honetan, ez dira kirol horietan jarduteko aukerak ezabatuko, bidezkoa ez delako baina kirol horietaz gain aukera gehiago daudela erakutsiko da, hala nola zoru eta horma jokoak, kirol alternatiboak, eta abar.

Eremu naturala

Urrats honek zailtasun handien planteatzen dituen da. Pauso hau burutzeko ikastetxeak eskola-patioaren zati baten lurzorua moldatzeko obra abian jarri beharko luke, eta horrek dakartzan kostuak kontuan hartu beharko lirateke. Hala ere, eremu honek egingo dituen ekarpenak, zein ikasleen garapenean eta jolastokiaren izaeran izango duen eragina jakinda, inbertsioak merezi du. Urrats hau eskola-patioan eremu natural bat sortzeari dagokio, ikastetxeak abian jarritako eta [aurretik azaldu den](#) eskola-ortua proiektuaren ondoan kokatuko dena eta zerikusi estua izango duena.

Eremu naturalaren antolaera hurrengo litzateke:

Hasteko, lurzoruaren eraldaketa beharrezkoa litzateke, esan bezala, hiriko zoru grisa desagertarazteko eta jolastokiari kolore biziak eta berdeak emateko. Zoru horren ordez lurra, belar eta harri eremuak ezarriko dira.

Eskola baratzera sartzeko bidea oholekin eraikiko da, egun euritsuena eta ikasleen igarotzearen ondorioz lokatsez bete ez dadin.

Bide horren beheko aldean ***lasaitasuna eta kontzentrazioarako esparrua*** antolatuko da. Esparru hau egurra eta harriekin osatutako eserleku eta mahaiekin doitu da, ikasleek irakurtzeko, marrazteko, pentsatzeko, lasaitzeko... esparru bat eduki dezaten. Gaur egun bizi garen mundu teknologikoan umeek gero eta gutxiago irakurtzen dute, are gehiago euskarri fisiko batetik dagokionez. Jardun hori bultzatzearen, euria eta hotza jasaten dituen material batekin egindako ***apalategia*** egongo da, adin zein gai ezberdinetako liburuekin honritutakoa.

Sarrera horren beste aldean ikasleak manipulatzeko hodiekin osatzen duten ***iturria*** kokatuko da. Iturri honekin ikasleek euriak askatutako ur kantitatea neurtzeko aukera izango dute. Horretarako, prezipitazioak neurtzeko gailuaren ondoan apuntatzeko koaderno bat eskegita egongo da; zeinetan ikasleek egunero jasotako ur kantitatea apuntatzeko aukera izango duten. Gainera, hodiekin sortutako konexioak moldatuz urak egiten duen ibilbidea eraldatuko dute, [III eranskinean](#) agertzen diren argazkiak eredu izanik. Iturriaren amaieran ikerketarako mahaia egongo da, zeinetan ikasleek ura beste elementu batzuekin nahasteko aukera izango duten. Eremu honetan uraren presentzia nagusitzen denez, lurzorua harriez egindakoa izango da, basatza ekiditearren. Iturriaren alboan ikasleek objektuen eta material ezberdinen pisuaren inguruan hausnarketa eta ikerketa ahalbidetuko duen ***balantza tradizionala*** egongo da, birziklatutako materialekin

eta egurrekin eraiki daitekeena ([IV eranskinean ereduzkoa ikusgai](#)). Are gehiago, gelan ikasleek aurrera eramandako proiektu baten bitartez eraiki dezakete. Balantzak arbel txiki bat izango du bere ondoan eta ikasleek horretan pisatutako elementuak apuntatzeko aukera izango dute. Aipatutakoaz gainera, iturriaren eta balantzaren ondoan egurrezko mahai handi bat kokatuko da, ikasleek erabilitako materialak edo dena delakoa horretan uzteko.

Jolastokiari alaitasuna eta bizitza gehituko dion eremu natural honen eraiketarekin jarraitzeko, gurpilak, enbor zatiak, sokak, oholak eta sokez egindako eskailerak erabiliz osatutako *“zirkuitu naturala”* dago, [V eranskinean](#) erabiltzeko proposatzen diren elementuak ikus daitezke. Zirkuitu itxi honekin ikasleek mugitzeko eta jolasteko aukera edukiko dute. Zirkuitua osatzeko umeak enborren eta gurpilen gaintik jauzi eginez edo oreka mantenduz igaro, gurpilen erditik pasa, soketatik lurra ukitu gabe pasa, horma-oztopoa gainditu eta eskailera erori gabe gurutzatu beharko dute. Bestalde, bide erdian irtenbide bat hartzeko abagunea izango dute: eskalada piramidera doan bidea. Ibilbide honetan ikasleek bi sokek osatutako bidea hartu eta eskalada piramide batera helduko dira. Piramide eta eskola-baratze artean *erabilera anitz* edukiko dituen *eremua* egongo da: esertzeko, antzerkiak egiteko, lasterketak antolatzeke, eta abar. Eremu hau borobilean kokatutako egurrezko ohol luze eta lodiek zein landareek osatuko dute; egurrezko oholek eserlekuak/oztopoak izango dira eta landareak eremuaren naturalizazioarekin jarraitzeko tresna. Zirkuitu honen harira, esparru natural honetan egongo diren zuhaitzak aprobetxatuz, *slack-line* bat jarriko da.

Zonalde honetatik eremu naturalaren beste alderaino landaretzak beteko duen espazioa dago. Landaretza hori zuhaitz handiek eta zuhaixkek osatuko dute, itzala sortzeaz gain, fauna eta begetazio ezberdina erakarriko dutelakoan. Landatutako zuhaitz horiek ez dira hazitik landatu behar, hazte prozesua oso luzea denez ikasleek ez luketelako horietaz disfrutatuko. Zuhaitz horiek sor ditzaketen arriskuak murrizak izan behar dira, hala nola, sustraien hazkundeak sortutako arriskuak; aukeratutako zuhaitzek erakartzen dituzten izaki bizidunek sor ditzaketen arriskuak; zuhaitz horiek izan ohi dituzten plagak; alergiarik eragiten duten ala ez, eta abar. Bestalde, interesgarria litzateke ikasleak egoteko gerizpea sortzeaz gain, ikasleek hazkunde eta eraldaketa prozesua behatzeko aukera izatea, fruituak nola hazten diren ikustea eta kolore eta forma ezberdineko hostoekin jolasteko aukera izatea, besteak beste. Aniztasun hori bermatzearen eta aipatutako arriskuak kontuan izanda, hurrengo zuhaitzak proposatzen ditut, [VI eranskinean](#) ikus

daitezkeenak: lizar loredua (*fraxinus ornus*), lizar arrunta (*Fraxinus excelsior*), lizar hostotxikia (*Fraxinus angustifolia*), astigar arrunta (*Acer campestre*), astigar zorrotza (*Acer platanoides*), hurritza (*Corylus avellana*), indimitrea (*Lagerstroemia indica*), haritza (*Quercus robur*), haritz kandugabea (*Quercus petraea*), gaztainondoa (*Castanea sativa*), ezki hostotxikia (*Tilia cordata*), eta abar (Castilla, d.g.; Hurritz, 2021; Martín, 2015; Martínez Gutiérrez, d.g.; Ruiz de Angulo, d.g.; Portillo, d.g.; Quercus Robur, 2021). Zuhaitzetara txoriak erakartzearen, tutoreak **txorientzako etxetxoak** eraikitzeo tailerrak aurrera eraman ditzake; ondoren, etxetxo horiek zuhaitzetan eskegitzeko.

Zuhaitz handi horiek sortutako itzala aprobetxatuz, gerizpean kokatutako **sozializatzeo lekua** egongo da. Leku hau talde txikietan elkartutako eserlekuek osatuko dute, guztien artean talde handi bat osatzen dutenak. Jesarleku horiek, beste eremu batzuetan aipatua izan den bezala, enbor zatiek, harriek edo "sofak" imitatuz elkartutako paleek osatuko dute. Eredua ikusteko aukera [VII eranskinean](#) dago, horretan agertutako enborrak, paleak eta mahaiak gure jolastokian kokatu nahi direnak izanik, material naturalak eta birziklatuak diren heinean.

Izadiak material ezberdinen erabilera bultzatzen du. Hori dela eta, ikastetxe barruan antolatutako eremu natural honetan **etxola** bat egongo da. Etxola honetan gazteek eremuan sortutako zonalde ezberdinetan erabili ditzaketen materialak gordeko dira: kuboak, palak, orgatilak, aitzurrak, neurtzeko gailuak, lorezaintzarako erramintak, sokak, eskularruak, eta abar.

Ikasleak geletan egindako langetarekin kontzientziatuak egongo direnez, eremu honen mantenimenduan esku-hartze aktiboa izango dutela uste da. Hala ere, bi astetan behin eremu honetan mantentze lanak egin beharko lirakeke, gehienbat urtaro euritsuetan, ikasleen ongizatea eta segurtasuna ziurtatzeko. Eremu naturalaren antolaera hobeto ulertzeko [VIII eranskina](#) ikusgai dago, zeinetan eremu horren eredu-zko-planoa txertatu den.

Aurretik aipatu bezala, urrats honen helburua asfaltatutako jolastoki-urbano grisa alde batera uztea eta ikasleak naturara hurbiltzeko eremua eskaintzea da, ingurumenean hezteak eta honekin harremanetan egoteak dakartzan onura eta eskaintzen dituen aukerak ugariak baitira. Eremu honetan irudimena, esplorazioa, asmakizunak eta jolasak askatasunez asmatu eta lantzerak bultzatzen duten estrukturak aurkituko dituzte (Burgaz, 2016), adin ezberdinetako ikasleen arteko elkarrekintza emanez. Esparru honetan libre

eta autonomoki jarduteko aukera edukiko dute, testuinguruneaz jasotako estimuluengatik bultzatuta arrazoitzen ikasiko dute, sormena bultzatuko da, motrizitate fina landuko dute, frustrazio momentuak gainditu beharko dituzte eta hori lortzeke, sozializatzeko, jolasteko zein intimitatean egoteko eremuak erabilgarri edukiko dituzte. Are gehiago, ikasleek naturarekin harremanetan hezi eta haziko dira, balore ezberdinak bereganatuz eta horrekiko errespetua eta zaintza garatuz. Bestalde, eremu naturalean jarduteko aukera izateak hurrengo onurak ditu Granero eta Baenaren (2007) hitzetan: sozializazioa sustatu, kooperazioa ahalbidetu, talde-lana eta errespetua sustatu, ohitura osasungarriak barneratzea testuinguru naturalean, hezkuntza integralean ekarpenak egin, ikasleen autonomia garatu, norberaren mugak gainditzea posible egin, egokitzeko gaitasuna landu, ikaskuntza esanguratsua bultzatu eta azkenik, aurretik aipatutako ingurumenaren ezagutza eta horrekiko errespetua garatzea (Domínguez-en lanean aipatua, 2020).

Eremu musikatuak

Ikasleen garapen integrala bermatu nahi bada, mota anitzetako estimuluak jaso behar dituzte. Kasu honetan, proposamena, eskolak eskainitako entzunezko estimulu musikalaren harira doa, egun musikatuekin, hain zuzen ere. Aurretik aipatu bezala ikastetxeak egun batzuetako jolastorduetan zehar musika jartzen du. Alde batetik, musika maiztasun handiagorekin jartzea ondo legoke, ahal izanez gero, musika egunero jartzea egokiena izango litzateke, ikasleek haien atsedenean musika entzun dezaten, dantzatzeko, abesteko edo behintzat hori egiteko aukera izan dezaten. Beste arloekin bezala, musikak bere eremua eduki behar du jolastokian. Horregatik, musika aprobeitzatzeko hurrengo eremua antolatuko da; horretan, orkestra jolasa edo ikasleek asmatutako beste jolasak aurrera eramanez ahalko dira [IX eranskinean](#) beha daitezkeen zoru-marrazkiekin eta eszenatokiarekin. Orkestra jolasean ikasle batek "zuzendari" rola hartzen du eta besteek horrek egindakoa imitatu behar dute. Eremu honetan ikasleek, beste askoren artean, koordinazio dinamiko orokorra, oreka, gorputz-eskema, irudimena, sozializatzeko gaitasuna, gatazkak konpontzeko abilezia, rol ezberdinak eta gorputz adierazpena landuko dute. Giza-gorputza mugimendurako eta mugimendu testuinguru baterako eginda dago eta dantza, Garcia Rusoren (1997) hitzetan, giza jarduera unibertsala, jarduera motorra, balio anitzeko jarduera, eta jarduera konplexua da (Fuentes-en testuan aipatua, 2006). Beraz, dantza ez da mugimendu soil bat eta onura anitz izan ditzake umeen garapenean, ekintza ugari eragiten baititu: keinuak, lekualdaketak, pausuak, jauziak, giharrak luzatzea, giharrak uzurtzea, biraketa, gelditzea, adieraztea, komunikatzea,

erlazionatzea, eta abar. Sachsek (1963) dantza komunikatzeko zein adierazteko erabilitako ekintza dela dio, kultura-gizarte gehienetan adierazteko eta komunikatzeko erabilitako aitorpen sozial eta kultural garrantzitsua izanik (Fuentes-en testuan aipatua, 2006). Aipatutakoaz gain, balore ezberdinak helarazteko baliagarria da. Gainera, musika eta dantza bi eremu hauen ondoan eszenatoki txiki bat kokatuko da, musika aprobetxatuz edo ikasleek sortutako adierazpenak aprobetxatuz, horretaz disfrutatzeko aukera interesgarria izanik. Ikasleek rol ezberdinak hartuko dituzte, besteen aurrean antzezteko aukera izango dute, ekitaldiak antolatzeke aukera izango dute, eta abar.

Horma musikatua

Aurreko eremuarekin zerikusia duen beste eremu bat *horma musikatua* izango litzateke. Izenak dioen bezala, eskola-patioko horma batez baliatuz musika sortzeko elementuak kokatuko dira. Elementu horiek birziklatutako materialak izango dira, hala nola, hodiak, zartaginak, parrilak, kazolak, kazola eta zartaginen tapak, ontziak eta egurra. Aipatutako zein denborarekin gehituko diren elementuak material ezberdinekoak izango dira, soinu ezberdinak sortzeko aukera eduki dezaten, [X gehigarriko](#) eremuan bezala. Haien eskuez gain, makilak eta mahai tresnak eskuragarri egongo dira soinua sortu ahal izateko. Eremu honek sormena, irudimena, motrizitate fina eta erritmoa lantzeko aukera eskainiko du. Horretaz aparte, ikasleek disfrutatu eta dantza egiteko zein abesteko eta musika sortzeko aukera izango dute. Eremu honi esker ikasleek kooperazioaren bitartez produkzio artistikoak sortuko dituzte. Horrez gain, haien ahotsa eta gorputza musika sortzeko erabiliko dute, oreka afektiboan eta besteekiko sozializazioan eragina duenak (Díaz, 2004).

Material arduradunak

Joko-jolas aniztasun eskasa areagotuta ikus daiteke umeei futbolearen eta saskibaloian aritzea mugatzeagatik. Aniztasun eza horri irtenbidea bilatzearen *material banaketa* antolatzea dago: Ikastetxeak material ezberdinekin hornitutako bi kutxatzar prestatu eta jolaslekura joateko irteeretan kokatuko ditu, bat lehenengo, bigarren eta hirugarren mailako ikasleentzat eta bestea, aldiz, laugarren, bostgarren eta seigarren mailako ikasleentzat. 6. mailako ikasleak, helduenak direnez materiala banatzearen ardura hartuko dute (aste bakoitzean bi bikote). Bikote bat 1., 2. eta 3. mailakoei materiala banatzeaz arduratuko da eta bestea, 4., 5. eta 6. mailakoei. Arduradunek jolastordua hasi baino bost minutu lehenago dagokien lekura hurbildu beharko dira, non kutxetan dauden materialak zerrendatuta izango dituzten. Ikasleak ilara mantenduz hurbildu eta materiala

errespetuz eskatu beharko dute; orduan arduradunek materiala ze ikaslek eta ze gelakoa hartu duen apuntatuko dute [XI eranskinean](#) eskuragarri dagoen taula moduko bat erabiliz. Material banaketa jolastordua hasi eta 5 minututara amaituko da, arduradunek patioaz gozatzeko denbora izan dezaten. Jolastordua amaitzean, arduradunak haien txokora bueltatu beharko dira eta kideek materiala bueltatu ahala zerrendan apuntatuko dute. Era honetan material banaketak zein hartutako materialak arduradun bat izango dute, materialaren zainketa eta kontrola ziurtatuz. Bestalde, ikasleek arduradunaren rola hartuko dute eta banaketa prozesuan protagonistak izango dira. Rol hori ikasle guztiek hartu beharko dutenez, era enpatikoan eta errespetuz jardutea bilatzen da, inoren lana oztopatuz edo inor zirikatuz barik. Kutxa horietan, besteen artean, hurrengoak egon daitezke: pilotak, indiakak, frisbieak, sokak, badminton raketak, esku-pilotak, klarionak, uztaiak, akuilu-makuiluak, artaburuak, dado handiak, zesta-punta, palak, ping-pong palak, diaboloak, zibak eta abar.

Zoru- eta horma- jokoak

Materiala banatzeak jolasteko aukera anitz eskaintzen duen arren, eskola-patioaren berrantolaketan kolore anitzetako markak eta estruktura fisikoak erabiltzeak ikasleen jardura fisikoa eta arretari adre ematen dion estimulu egokia dira (Molins-Pueyo, 2012; Salas eta Vidal-Conti, 2020). Estimulu hori eskaintzearen zoru-jokoak balio handiko tresna dira. Ikastetxeak bere proiektuan egindako 3 zoru-jokoez gain, beste hainbat gehitzea zuzenena litzateke. Ikastetxearen proposamenari hurrengo jolasak gehitzea ondo legoke:

- ***Zoru-jokoak*** ([XII eranskinean ereduak ikusgai](#)): Hiru marran, oka (horretarako materialen kutxatzarretako dado handiak behar dira), twister, damak, partxis, zirkuituak, ziba-bataila (zibak botatzeko eremua), borobila, tenis-zelaia, komekokosa eta zoruko diana.

Alde batetik, tradizionalak diren hiru marran jolasa, partxis, damak, komekokosa eta oka, zeinetan fitxak umeak izango diren. Bestalde, ikasleek aukeratutako materiala erabiltzeko aukera ezberdinak eskaintzen dituzten eremuak: zoruko dianak eta ziba-bataila. Jarraitzeko, ezaguna den twisterrean jolasteko aukera, inolako material edo mahai-tapizaren beharrik gabe. Borobilean ikasleak dagokien borobil-zatian kokatuko dira eta helburua pilota kolpatzea eta erdiko borobilean jotzea izango da, haien arteko paseak eginez. Pilotekin jolasteko

aukera eskaintzearen tenis zelai txikia marraztuko da, norberak nahi duen erabilera eman diezaion.

- **Horma-jokoak** (*XIII eranskinean ereduak ikusgai*): Arbela, diana ezberdinak eta frontoi txikia.

Horma batean arbela bat sortzea, umeeek haien irudimena eta ideiak islatzeko aukera izan dezaten: irudiak, marrazkiak, zenbakiak, izenak... Horretarako material kutxatzarretan klarionak eskuragarri egongo dira. Horrez gain, hormetan diana ezberdinak irudikatuko dira, punteria jolasak sustatzeko. Azkenik, frontoi txiki bat, jolas ezberdinak aurrera eramateko abagunea ematen duen eremua baita.

Zoru jokoek ikasleen motrizitatea, irudimena, adimena, koordinazioa eta sozializatzeko gaitasuna garatzea ez ezik, beste gai batzuen inguruan ikastea eragiten dute, hala nola, letrak, zenbakiak, animaliak, eta abar. Lurrean margotutako lerroetaz baliatuz ikasleek irudimena gara dezakete, jolas berriak eta istorio sinbolikoak asmatuz; bestalde, lerroek edo ikasleek planteatutako jolasek ikasleen adimena eta motrizitatea abian jarriko dituzte, korrika egitea, jauziak edo lekualdaketak eta adimena, aldiz, jolasa ulertzeko eta planteatutako erronkari aurre egiteko; azkenik, beste umeeekin partekatzen diren espazioak eta jolasak direnez, ikasleek haien sozializatzeko gaitasuna garatzeko aukera ezin hobea edukiko dute. Zoru jokoen artean, aterpeko hormak erabiliz, horma-jolasak irudikatzea ideia ona litzateke, adibidez, punteria lantzeko edo pilotekin zein indiakarekin jolasteko. Beste alde batetik, gehitutako zoru/horma-joko horiek jolaslekuaren bi aldeetan egitea egokiena litzateke, eremu ezberdinetan horietaz gozatzeko aukera egon dadin. Zoru-joko asko tradizionalak diren mahai-jolasak irudikatzen dituzte, ikasleen jolas-kultura areagotzeaz gain eta ondo pasatu ez ezik, edozein adineko ikasleentzat egokiak eta ikasteko balio duten jolasak direnak. Bestalde, ziba moduko jostailu tradizionalei lekua utzi behar zaie, bizi garen mundu teknologikoan jostailu eta jolas tradizionalen erabilpena bultzatze aldera. Gaur egungo umeeek haien aisialdian gailu teknologikoak erabili ohi dituzte ondo pasatzeko eta inkontzienteki ikasteko. Aipatutako arrazoiez gain, hainbat ume eta familien kasuan ez dago bizi garen lurraldearen kulturarekiko atxikimendurik. Atxikimendu eta euskal-kulturaren hedapena eta sentimendua zabaltzearen, frontoi-txikia "eraikitzea" dago, gutxi dirudien arren, euskal kultura eta kirolaren zati bat irudikatzen duena.

Kirol alternatiboak

Urrats honetan kirol alternatibo ezberdinak planteatzen dira, jolas kultura eta aukerak areagotzeko. Planteatutako kirol alternatiboak, besteen artean, hurrengoak dira (Deportes Alternativos, d.g.): *korfbal* (saskibaloiko saskiekin edo moldatuz), *colpbol*, *datchball*, *intercrosse lacrosse* (birziklatutako materialekin), *kickball*, *bijbol*, *kinball*, *ultimate* (frisbiekin), malabareak, *paraxuta*, *artzikirola*, *flagball*, eta abar.

Kirol horien ulermena eta ezagutza ziurtatzeko, Gorputz-Hezkuntzako eta tutoreen parte-hartzea zein haien arteko kooperazioa aberasgarria litzateke. Haien onspena jasoz gero, Gorputz-Hezkuntzako irakasleak saio batzuk erabili ditzake kirol alternatiboak irakasteko eta praktikatzeko; tutoreak gelan (bideoekin sarrera eginez) edo jolaslekuan beste kirol-jolas alternatibo batzuk aurrera eramaten dituen bitartean. Jolas hauek zailtasun txikiko mugimenduak eskatzen dituzte; garapen integralerako ekarpen aberasgarria egiten dute; ikasle ororen hasierako maila berdina izanen da, erabili beharreko material berritzaileak ez dira oso garestiak (askotan birziklatutakoak) eta beste kirol batzuek duten lehiakortasun kaltegarria baztertzen du (Barbero, 2000). Landutako arlo ezberdinen artean hurrengoak azpimarra daitezke (Meneces eta Villarreal, 2018): Koordinazio dinamiko orokorra, espazio-denbora hautematea, begi-esku arteko koordinazioa, hezkidetzak, harreman interpertsonalak, sozializazioa zein estrategia eta erabakien ulermena.

Aipatutako kirolez gain, alternatiboa den eta umeei asko gustatzen zaien kirolean jokatu ahal izateko mahaia instalatuko da, ping-pong mahaia hain zuzen ere. Kirol honek jolasteko aukera ezberdinak eskaintzen ditu, bat baten aurka; bi biren aurka; taldeka; *erlojua* jolasa; eskuarekin eta baloi batekin jolastea, eta abar.

Marinek (2013) esan bezala, hezkuntza curriculumak eta jolaslekuaren antolaketa zein honi emandako erabileraren artean ez dago konexio handirik. Dekretuak ikasle ororen inklusioa bermatu behar dela dio, nagusitzen diren kirolak eta jarduerak diskriminatzaile zein baztertzailak diren bitartean. Ideia honek nagusiak diren kirol horiek alde batera uztea eta ume guztien parte-hartzea sustatzen duten kirol alternatiboak txertatzean datza.

Argi dagoena da kirol alternatiboek umeak kirolean integratzen dutela, bere ezaugarri-gaitasun fisikoak zeintzuk diren axola gabe; garrantzia baloreen garapenari, parte-hartzeari, material berritzaileari, talde-lanari eta emaitzak duen garrantzi txikiari

ematen zaio (Fierro et al., 2016). Kirol-jolas alternatibo hauen bitartez egoera motor motibatzaile berriak planteatzen dira; aukera berdintasuna sustatzen da; parte-hartze murrizta duten ikasleen motibazioa areagotzen da; balore ezberdinak sustatzen dira, hala nola, errespetua, talde-lana, adiskidetasuna, kooperazioa edo berdintasuna; norberaren garapena sustatzea; sozializazioa; material berrien erabilera; kirolean txertatzeko proposamen egokiak dira eta ume guztien gaitasun eta abilezia motorrak garatzen dira (Fierro et al., 2016).

Jolas tradizionalak komunitatean

Oso interesgarria den eta ondorio positibo ugari izan ditzakeen beste proposamen bat jolas tradizionalak izango lirateke. Proposamen honetarako eskola-komunitatearen beste agente baten parte-hartzea ezin bestekoa izango litzateke: familiak. Agente honen esku-hartzea gero eta ugariagoa da, gero eta parte hartze aktiboagoa du hezkuntza prozesuan. Ekintza honetan jolas-tradizional ezberdinak plazaratuko dira eta horiek aurkeztearen eta azaltzearen arduradunak familiak izango dira: aita, ama, osaba, izeba, aiton-amonak... Dinamika hau posible izan dadin, familia-eskola arteko adostasuna garrantzia handikoa izango da. Familiek jolasa aukeratu, eskolari adiera eman eta eguna zein dinamika zehaztuko da, irakasleen laguntzarekin jolastordua dinamizatu dezaten. Nahi izanez gero, baita irakasleek ere jolasak plazaratu ditzakete. Kultura eta garai ezberdineko jolasak ezagutarazteaz gain, familien inplikazioa bermatuko da, umea inguratzen duen eskola-komunitateko agente garrantzitsu bat den heinean. Ekintza hau familien parte-hartzearen arabera antolatuko da: familien parte-hartzea ugaria baldin bada, dinamika asteazkenero eramango da aurrera; parte hartzea murriztagoa izanez gero, aldiz, bi ostegunetan behin burutuko da. Parte-hartzea eskasa izanez gero, aipatu bezala, irakasleen edo bolondresen partaidetza onartu eta eskertuko da. Ekintzaren helburua jatorri, kultura eta garai ezberdineko jolas tradizionalak ezagutaraztea da; era berean, ikasleen jolas-kultura handituz, jolas-popularrak sozializatu eta hezteko tresna den heinean; ikasleen osasun fisikoa, soziala, afektiboa eta emozionala hobetze aldera eta harreman sozialak eta gatazken kudeaketa sustatzeko (Varela, 2015).

Baloia erabilera

Eraldaketa honek baloiaren erabilpena mugatzea egokiena litzatekeela kontuan hartzen du. Eskola-patioetan baloiak orokorrean bi ekintzetarako erabili ohi baitira: futbola eta saskibaloia. Neurri honek ikasleak proiektu honek planteatzen dituen alternatibak ezagutzera eta frogatzera bultzatu nahi ditu. Hala ere, baloiek joko-jolas

aniztasun handia eskaintzen dute; beraz, hauen erabilera mugatzeak joko-jolas asko baztertzea eragingo luke. Gainera, baloiak eta higikari ezberdinak erabiltzeak garapenean eragin zuzena du: espazio-denbora arteko kudeaketa, motrizitatea, adimena, koordinazioa eta talde jolasak diren heinean, sozializazioa eta gatazkak kudeatzeko erramintak garatzea. Hori dela eta, baloiaren erabilera mugatu beharrea, honi ematen zaion erabilpena mugatzea bidezkoena litzateke.

Antolamendua hurrengo izango litzateke:

- Material arduradunek futbol eta saskibaloiko baloiak egunaren arabera banatuko dituzte:
 - ✦ Astelehenetan: Lehenengo eta bigarren maila dagokie futbol eta saskibaloia. Lehenengo mailakoek fosoa eta saski bat; bigarren mailakoek kanpoko futbol-zelaia eta beste saskia.
 - ✦ Astearteetan: Hirugarren mailakoei dagokie zelaien erabilpena.
 - ✦ Asteazkenetan: Laugarren mailakoei dagokie zelaien erabilpena.
 - ✦ Ostegunetan: Bostgarren mailakoei dagokie zelaien erabilpena.
 - ✦ Ostiraletan: Seigarren mailakoei dagokie zelaien erabilpena.
- Eraldaketa honen hasieratik gatazken kudeaketa ikasleei dagokie, eta irakaslearen esku-hartzea bakarrik beharrezkoa den kasu horietan emango da. Liskarrak ez sortzeko, tutore bakoitzak txilibitu eta txartel horia eta gorria izango ditu; beraz, futboleant eta saskibaloiant aritzea dagokienean, saskibaloirako eta futbolerako **epaile bana** zehaztuko dira. Ikasle guztiek argi izan behar dituzte hurrengo arauak: Epaileen erabakiak errespetatu eta bete beharko dira, hori horrela ez bada, epaileek txartelak erabiltzeko aukera izango dute. Horiak minutu bat kanporatuta egongo dela esan nahi du eta gorriak, aldiz, jolastordu horretan berriz jolastu ezin dela. Arazoak egon ez daitezten, gela bakoitzeko epaile bat egongo da eta erabakiak epaile guztien artean hartuko dira. Bestalde, epaileek argi eduki behar dute ez dutela haien lagunen alde egin behar, bere rola joko-garbia eta errespetua sustatzearena baita. Ikasleren batek epaileak errespetatzen ez baditu ezin izango du jolastu, saskibaloiant eta futbol profesionalean gertatzen den moduan.
- Futboleant eta saskibaloiant aritzeko ez bada, ikasleek egunero eskuragarri izango dituzte tamaina eta material ezberdineko pilotak.

Eraldaketa honekin hainbat gauza bermatuko dira. Alde batetik, ikasleek futboleant eta saskibaloiant aritzeko aukera izango dute, beraz, nahiz eta nagusitasun

“kaltegarria” duten bi kirol hauen jarduna mugatu, ez dira debekatuko, beste kirolek bezala, egoki kudeatuz gero onurak izan ditzaketelako. Bestalde, jardun horretan jokogarbia bermatuko duen agente bat gehitu da: epailea. Era honetan ikasleek rol ezberdin bat hartuko dute eta gatazkak ekidingo dira. Jarraitzeko, pilota/baloien erabilera ez da debekatuko, higikariekin jarduteak garapen integralerako ekarpenak egiten baititu. Azkenik, ikasleak prozesuan zehar parte-hartze aktiboa izan dutenez kontziente izango dira bi kirol hauek duten nagusitasunaz eta orokorrean, hauek eragiten dituzten liskar eta arazoetaz. Hori dela eta, arau berriak hobeto onartuko dituzte eta esfortzua egingo dute praktika onuragarria bihur dadin. Kontzientziazio eta moldaketa hauen helburua etorkizunean nagusitasun kaltegarri hori duten kirol hauek beste eremu eta jarduera guztiekin elkar-bizitzea da. Antolakuntza berri honekin, bestalde, gela ezberdineko ikasleen arteko harremanak bultzatzea bilatzen da.

Egun euritsuak

Ikastetxearen kokalekua eta zonaldearen klima kontuan izanik, urtaro euritsuak presentzia handia duela argitu beharra dago. Horregatik eskoletan egun euritsueta jolastorduko protokoloa dago. Egun dagoen pandemia egoeratik ikasleek gelan ematen dituzte egun euritsuak; hala ere, egoera arrunt batean ikasleek gela bakoitzean dagoen materiala eskuragarri baino ez zuten, hau da, soka edo pilotaren bat, alternatiba gutxi eskaintzen dituztenak. Hori kontuan izanda eskolak erabilgarri dituen bi eremuak (polikiroldegia eta aterpea) eta material kutxatsarrak aprobetxatzea planteatzen da, bi eremutan proposatutakoa berdina izanik. Ikastetxeak material ezberdinak polikiroldegian zein kanpoko aterpean eskuragarri edukiko ditu eta ikasleek horiekin jolasteko aukera izango dute. Ezarriko den baldintza bakarra baloien erabilpena mugatzearena izango da, eremua txikia izanda eta ikasle askoren artean partekatua izanik, baloiekin ikaskideren bati mina egiteko arriskua handia baitago. Era honetan ikasleek jolas aniztasun handia edukiko dute, alde batetik, aterpeko lurzoruan dauden zoru/horma-jokoak aprobetxatuz; beste alde batetik jolastokian ikasi eta praktikaturako zoru- zein horma- jolasak polikiroldegian dauden lerroak erreferentziatuz hartuz jolasteko; eta azkenik, kutxatzarretan dauden material ugariak erabiliz.

Irakaslearen papera

Jolastokiaren eraldaketarekin batera, hezkuntzan eragina duen beste agente baten jokaera-jarduera aldatu beharra dago: irakaslea. Eraldaketa prozesuarekin hasteko momentua ailegatu arte eta hori behin hasita, haien dinamizazioa eskatzen duten

jolastorduetan izan ezik, irakaslearen figura begiralearena izan da. Ez dago koherentziarik irakasleek ikastetxeetako hezkuntza-proiektuei buruzko diskurtsoetan emandako garrantziaren, jolasa hezkuntza-tresna gisa eta kultura transmititzeko tresna gisa aipatzen duten ideien eta praktiken artean (Molins-Pueyo, 2012). Azken batean, jolasteak gatazka eta askotan gaizki-ulertuak, eztabaidak, irainak edo borroka fisikoak dakartzate. Liskar horiek eta horiek konpontzeko modua da, inolako zalantzarik gabe, jolasteak ematen dizkigun hezkuntza-aukera ugarietako bat. Noiz esku behar duten, haurrek haien kabuz desadostasunak konpontzeko noiz itxaron behar duten eta bitartekari lanak egiten ikasteko baliabideak nola eta noiz eman behar dituzten jakitea hezitzaileen lana da (Marín, 2013). Dozenteen artean beharrezkoa da jolastokiari derrigorrezko-hezkuntzan behar duen tokia eta garrantzia egokitzen dion birplanteamendua, heziketa-esparrutzat hartzen duena. Jardunbide egokiak eta esperientzia positiboak eskola-patioetan zabaltzea sustatzea bilatu behar da. Haien jardunak bi norabide har ditzake: alde batetik, proiektu honetan aurrera eramaten ari den eremuaren berrantolaketarekin; bestalde, ikasleak jolasteko estimulatu, jolastera bultzatu, dinamizatu, proposamenak eginez, eta abar (Molins-Pueyo, 2012). Bide hauek irakasleek eduki behar duten jarrera eta papera izanda.

Beharbada, azken urteetan familia-eskola artean sortutako mesfidantzaren ondorio da irakasleen gaitzuste eta geldiera, bakarrik agerikoak-larriak diren egoeratan esku-hartzea eraginez (Molins-Pueyo, 2012). Izan daiteke irakasleek uste dutelako jolastokia gatazka-gune potentziala dela berez eta egiten diren jarduera motengatik, eta horregatik aukera gisa baino gehiago mehatxu gisa ikusten dute. Irakasleen jardunean eragin dezakeen beste faktore bat irakaslearen lan-orduetan atsedenerako eta hausnarketarako utzitako espazio murrizak dira; jolastordua atsedean hori hartzeko eremu bakarra bihurtuz. Horrez gain, jolastokian irakasleak bere esku-hartzea aurrera eramateko dituen estrategiak urriak dira, askotan, nahi ez diren emaitzak edukiz. Aipatutako arrazoiengatik irakasleek jolastokian egiten dituzten esku-hartzeak gatazka-egoerekin lotzen dira gehienbat, eta gatazka kasu esplizituenetan bakarrik ikusten da: irakasleen erreklamazio gisa, borroka gisa edo istripu gisa. Hala ere, beste egoera batzuk ez dira gatazkatzat hartzen, ez baitute esplizituki helduen arretaren beharrik, talde minoritarioen bazterketaren kasuan bezala, eta egoera hori ez da gatazka terminoetan ikusten kexarik sortzen ez duen bitartean. Eskolak irakasleak esku-hartzeko estrategietan trebatzen lagundu beharko lituzke; ondoren, haien esku-hartzea aktiboagoa eta botere rola

alde batera utzita izateko: ikasleak bultzatu, ikasleak estimulatu, dinamizatu, proposamenak egin, eta abar.

Produktu finala

Aurrera eramandako proposamen guztiekin jolastoki berriaren antolaketa hurrengo litzateke, [XIV eranskin](#)eko planoan ikusgai dagoena. Zoruan margotutako jolas guztiak ez dira zertan erabili behar eta margotuta dauden eremu horiek beste ekintza baterako erabili daiteke, betiere, ikasleen arteko kudeaketa eta antolakuntza-negoiazioaren bitartez. Kontuan hartu behar da planoaren eredu baina ez dela eta errealitatean, eremu ezberdinen artean tarte handiagoa dagoela; eta horrek erabilera librerako esparrua egotea eragiten du.

ONDORIOAK

Lan honen hasieran eskola-patioa eta espazio horretan gertatutakoak ikaslearen garapenean duen garrantzia adiera eman nahi izan da. Autore ugari frogatu duten baieztapen horretatik hasita, jolaslekuak duen antolaketa eta bertan ematen diren jarduerak duen garrantzia zein eragina aztertu da, onura aberasgarriak izango lituzketen eta kontuan hartu beharreko alderdiak aipatu eta garatu. Egindako azterketa oinarria izanda, eskola-patio bat eraldatzeko proiektu bat ikertu eta hura hobetzeko hainbat proposamen egin dira, aipatutako kontzeptu ezberdinak momentu oro kontuan hartuz.

Proposamenaren helburu orokorra eskola-patioa gizarteak dituen eskaera berriei egokitzea zen eta hori bermatzen duten berrikuntza ezberdinak planteatu dira. Eraldaketa-proposamena interesgarria zein garrantzitsua da ikasleak protagonista izan direlako prozesu osoan zehar haien jolastoki ideala diseinatzen eta eraldaketak proposatzen zein horietan laguntzen; haien motibazioarako, kontzentrazioarako eta inplikazioa bermatzeko garrantzia handikoa dena. Bestalde, garrantzitsua da horrelako proiektu batek helarazi ditzakeen balore, jarrera eta harreman ezberdinak, proposamenek bultzatzen duten garapen integralaz gain. Proiektuan zehar ikasleek errespetua, inplikazioa, rol ezberdinen onospena, berdinen arteko harremana eta kooperazioa, besteen artean, barneratzeko aukera izan dute, etorkizunerako baliagarriak izango zaizkienak.

Beste alde batetik, genero estereotipoak eta bazterketa indartzen dituzten eremuak ezabatu, murriztu edo horien erabilera mugatzea proposatzen da, berdintasunaren eta inklusioaren alde egiten duten eremuak berrantolatuz, egungo gizartearen martxan dagoen borroka dena eta hezkuntza-sistemaren arlo guztietan txertatu behar dena. Interesgarria

da eskola-patio tradizionala alde batera utzita jolasteko aukera anitz daudela erakustea. Horrez gain normalean ahazten diren gaiak jorratu direla azpimarratu behar da: artea eta natura. Artea musikarekin, dantzarekin, eremuen apainketarekin eta idazteko txokoekin landu da; natura, aldiz, sortutako eremu naturalarekin. Biek onura ugari dituzte eta ekarpen handiak zein aberasgarriak egingo dituzte ikaslearen garapenean. Aldaketa oso garrantzitsua irakasleak jolastokian hartzen duen rola da. Proposamen honekin parte-hartze aktiboago bat egokitzen zaie, orain arte izan duten behatzaile rola alde batera utziz.

Berrikuntza proiektu honekin Vayerrek 1994an esandakoa lortu da, testuinguru aberats eta anitza lortzea, bakoitzaren jarduna norberaren helburu eta interesei bideratzeko aukera eskainiz (Cantó-ren lanean aipatua, 2004); eta gaur egun hain presente dagoen naturarekiko urruntasunak sor ditzakeen arazoak eta garapen oztopoak konponduz. Jardun horretan gatazkak egongo dira baina umeei jasotako balore eta kontzientziazioarekin gai izango dira egoera horiek haien kabuz egoki kudeatzeko eta ebatzeko, orain arte izan duten irakaslearen rola beharrik gabe.

Planteatu diren hobekuntzak errealak, anitzak, aberasgarriak zein interesgarriak dira, inolako kolektiborik edo alderdirik baztertu edo ahaztu barik. Argi dago eskola guztien kudeaketa ez dela berdina eta eraldaketa hori finantziatzeko eta aurrera eramateko oztopo handiagoak aurki daitezkeela. Espazio aldetik zailtasunak egotekotan proposamen honetan planteatu den aniztasuna handia murriztu daiteke proposamen gutxiagoekin, anitza den bitartean onurak izango baititu. Baina oztopo gehien eragin ditzakeen alderdia ekonomikoa da. Proposamenek ez dute kapital handiegirik eskatzen, oztopo horretan pentsatu baita aldaketak proposatzerakoan. Margoa baino behar ez duten zoru- eta horma-jokoak; birziklatutako materialekin egindako horma musikatua edo eremuak; kostu handirik ez duten materialak kutzak betzeko, eta abar. Hala ere, eremu naturalak oztopo handia bihur daiteke obra eskatzeaz gain horretan txertatutako elementuak eskuratzeko konplexuagoak izan daitezkeelako. Hori gertatzekotan eskola publikoa baldin bada Udaletxeak edo Jaurlaritzak eskainitako laguntzak behatu eta erakunde horiekin harremanetan jartzea egokiena litzateke, laguntza ekonomikoa edo materiala izan daitekeela kontuan hartuz. Horrez gain, eskolaren izaera zein den axola gabe, finantziario bila enpresa ezberdinekin eta elkarte ezberdinekin hitz egitea legoke, askok laguntzeko prestutasun handia dutelarik. Bestalde, kapitala lortze aldera kanpaina ezberdinak burutu daitezke: boligrafoen salmenta, pintxoak prestatzea eta auzokideei saltzea, bigarren

eskuko elementuen salmenta, eta abar. Egun hain presente dagoen aztergaia izanda, laguntzeko prest egongo diren elkarte eta proiektuak aurki daitezke.

Eskola-patioa aldatzeko eskola-komunitatea osatzen duten agente guztien inplikazioa garrantzia handikoa da. Agente ezberdinek eskainitako laguntzarekin eraldaketak oztopo gutxiago edukiko ditu komunitatea oso aberatsa baita, proiektuak zentzua edukiko du eta amaieran eskuratutako emaitza askoz aberatsagoa izango da.

BIBLIOGRAFIA

- Aizencang, N. (2018). La vivencia de jugar o jugar una vivencia. *Lúdicamente*, 7(14).
- Asins, C. (1994). *La ocupación diferencial del espacio en educación física*. L'Ensenyament de L'Educació Física. Ponencias IV Jornadas Internacionales de Coeducación. Valencia 437-448.
- Avilés Martínez, J. M. (2006). *Bullying: el maltrato entre iguales. Agresores, víctimas y testigos en la escuela*. Salamanca: Amarú.
- Barandiaran, A., Larrea, I., Martínez de Lagos, A., Miranda, N., eta Muela, A. (2015). Mejora del espacio exterior escolar desde la participación comunitaria. *Revista del Consejo Escolar del Estado-Participación Educativa*, 4(7), 161-168.
- Barbero, J. C. (2000). Los juegos y deportes alternativos en Educación Física. Lecturas: Educación Física y Deportes, Revista Digital, 22. Recuperado de <http://www.efdeportes.com/efd22a/altern.htm>.
- Bosada, M. (2018). *Propuestas para educar en igualdad de género desde la Educación Infantil y Primaria*. Educaweb. Hemendik berreskuratua: <https://www.educaweb.com/noticia/2018/06/26/propuestas-educar-igualdad-genero-educacion-infantil-primaria-18509/>.
- Bruner, J. (1984). *Acción, pensamiento y lenguaje*. Madrid: Alianza.
- Burgaz, B. (2016). *El patio escolar como espacio educativo: propuesta del patio como acercamiento a la naturaleza* [Gradu amaierako lana, Universidad Zaragoza]. CORE.
- Bouzó, L. (2017). *Acercamiento a la naturaleza en un centro de educación infantil. Una propuesta de mejora y actividades* [Gradu amaierako lana, Universitat Jaume I]. Repositori Universitat Jaume I.
- Calvo, M^a Isabel, Verdugo, Miguel Ángel, & Amor, Antonio Manuel. (2016). Family Participation is an Essential Requirement for an Inclusive School. *Revista latinoamericana de educación inclusiva*, 10(1), 99-113. <https://dx.doi.org/10.4067/S0718-73782016000100006>.

- Campos, M. J. (2018). *Aprendizaje entre iguales. ¿Qué beneficios aporta?*. Maria Jesús Campos.es. Hemendik berreskuratua <https://www.mariajesuscampos.es/aprendizaje-iguales-beneficios-aporta/>.
- Cantó, R. (2004). *Comportamiento motor espontaneo en el patio de recreo escolar* [Doktorego tesia, Universidad Politécnica de Madrid]. Archivo Digital UPM.
- Capretti, S. (2010). La cultura en juego. El deporte en la sociedad moderna y post-moderna. *Trabajo y Sociedad*, XV(16), 231-251.
- Castilla, F. (d.g.). *Acer campestre. Arce menor*. Arbolapp. <https://www.arbolapp.es/especies/ficha/acer-campestre/>.
- Castilla, F. (d.g.). *Acer platanoides. Arce real*. Arbolapp. <https://www.arbolapp.es/especies/ficha/acer-platanoides/>.
- Castilla, F. (d.g.). *Fraxinus excelsior. Fresno, fresno de hoja ancha*. Arbolapp. <https://www.arbolapp.es/especies/ficha/fraxinus-excelsior/>.
- Collado, S., eta Corraliza, J.A. (2016). *Conciencia ecológica y bienestar en la infancia: efectos de la relación con la Naturaleza*. Madril: CCS.
- Corraliza, I. (2000). El juego y su importancia en el desarrollo infantil. *Ocio, calidad de vida y discapacidad*, (9), 49-58.
- Delgado, I. (2011). *El juego infantil y su metodología*. Madrid: Paraninfo.
- Deportes Alternativos. (d.g.). Deportes alternativos [Sarrera blogean]. Hemendik berreskuratua: <http://deportesmasalternativos.blogspot.com/>.
- Díaz, M. (2004). La música en la educación primaria y en las escuelas de música: La necesaria coordinación. *Revista Electrónica Complutense de Investigación en Educación Musical*, 1(2), 1-14.
- Domínguez, J. (2020). *La iniciación a la escalada y sus beneficios en educación primaria* [Gradu Amaierako Lana, Universidad de Valladolid]. Trabajos Fin de Grado UVa, hemendik berreskuratua: <http://uvadoc.uva.es/handle/10324/45954>.
- DUNAK Taldea. [Erabiltzailea]. (2017ko apirilaren 3a). *Profileko informazioa*. [Ikusentzunezko deskribapena]. Facebook. https://www.facebook.com/DUNAKtaldea/?ref=page_internal.

- Fast, J. (1990). *El lenguaje del cuerpo*, Kairon, Bartzelona.
- Fierro, S., Haro, A., eta García, V. (2016). Los deportes alternativos en el ámbito educativo. *E-motion. Revista de Educación, Motricidad e Investigación*, (6), 40-48.
- Freire, H. (2011). *Educar en verde: ideas para acercar a niños y niñas a la naturaleza*. Barcelona: Graó.
- Fuentes, A. L. (2006). *El valor pedagógico de la danza* [Doktoretza Tesia, Universitat de Valencia]. Tesis Doctorals en Xarxa. Hemendik berreskuratua: <http://hdl.handle.net/10803/9711>.
- Gallardo López, J. A., eta Gallardo Vázquez, P. (2018). Teorías sobre el juego y su importancia como recurso educativo para el desarrollo integral infantil. *Hekademos, Año XI* (24), 41-51.
- Gallego, G. (2017). El patio del colegio: una asignatura más. *Educación y Futuro Digital*, 15, 101-132.
- García, C. T., Ayaso, M., eta Ramírez, M. G. (2008). El patio de recreo en el preescolar: Un espacio de socialización diferencial de niñas y niños. *Revista Venezolana de Estudios de la Mujer*, 13(31), 169-192.
- Garvey, C. (1977). *El juego infantil*. Madrid: Morata.
- González, A., Guix, V., eta Carreras, A. (2016). La transformación de los patios escolares: una propuesta desde la coeducación. *Aula*, (255), 67-72.
- González, M. P. y Cabrera, C. C. (2013). Actitudes hacia los roles sexuales y de género en niños, niñas y adolescentes (NNA). *Plumilla Educativa*, 12(2), 339-360.
- Hall, E. T. (1973). *La dimensión oculta. Un enfoque antropológico del uso del espacio, Nuevo urbanismo 6*. Madril: Instituto de estudios de la administración local.
- Hurritza. (d.g.). *Wikipedian*. Hemendik berreskuratua <https://eu.wikipedia.org/w/index.php?title=Hurritz&oldid=8497270>.
- Jimenez, E. (2006). La importancia del juego. *Investigación y Educación*, 26, 1-11.
- Lafuente, M. I. (2005). El "género" y la construcción de la realidad. *Cuestiones de género: de la igualdad y la diferencia*, 0, 81-109.


- Linaza, J. L. (1986). El juego y su influencia en el desarrollo del niño. *Revista de Educación*, 279, 25-36.
- Linaza, J. L. (2013). El juego es un derecho y una necesidad de la infancia. *Bordón*, 65(1), 103-117.
- López, I. (2010). El juego en la educación infantil y primaria. *Autodidacta*, 19-37.
- Luis Rico, M. I., de la Torre, T., Escolar-Llamazares, M. C., Ruiz, E., Huelmo, J., Palmero, C., eta Jiménez, A. (2020). Influencia del género en la aceptación o rechazo entre iguales en el recreo. *Revista de Educación*, Enero-Marzo 2020 (387), 89-115.
- Marín, I. (2013). Los patios escolares: espacios de oportunidades educativas. *Rayuela*, Año 4(8), 88-94.
- Martín, V. (2015). *Árboles de la cordillera cantábrica*. Rutaspor.com. <https://www.rutaspor.com/articulos/arboles-de-la-cordillera-cantabrica>.
- Martínez García, L. (2017). Socialización diferenciada por razón de género en Educación Infantil: un estudio etnográfico, *Revista Complutense de Educación*, 29(3), 919-934.
- Martínez Gutiérrez, A. (d.g.). Fresno. *Familia Oleaceae*. <http://alcoy.san.gva.es/alercoy/fichas/Fraxinus/Fresno-Fraxinus.pdf>
- Mateo, L. (2010). La violencia escolar entre iguales en Educación Primaria. *Temas para la Educación*, (7), 1-10.
- Meneces, D. N., eta Villarreal, L. (2018). *Deporte alternativo como práctica escolar. Una propuesta pedagógica desde el enfoque de la ética del cuidado*. [Grado Amaierako Lana, Universidad Pedagógica Nacional]. Hemendik berreskuratua: <http://hdl.handle.net/20.500.12209/10569>.
- Molins-Pueyo, C. (2012). Patios escolares y diversidad sociocultural en Cataluña. *Papers*, 97(2), 431-460.
- Morote, P. (2008). Juegos de niñas. Entre lo tradicional y lo contemporáneo. En P. Cerrillo y C. Sánchez (Koordts.). *La palabra y la memoria: estudios sobre*

- literatura popular infantil, (165-190). Cuenca: Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.
- Muñoz, D. I., eta Carmona, C. (2020). La importancia de las relaciones sociales entre iguales: la diversidad cultural en Educación Primaria. Llundín, C., Esteban, M. B., Bergmann, J. C. F., Castells, N., eta Rivera-Vargas, P. (Eds.), *I Conferencia Internacional de Investigación en Educación*. (641-654). LiberLibro.
- Pedró, F. (2017). *Tendències d' globals en Innovació Educativa*. Anuari de l' Educació a les Illes Balears.
- Portillo, G. (d.g.). *Fresno común (Fraxinus excelsior)*. JardineriaOn. <https://www.jardineriaon.com/fraxinus-excelsior.html#comments>.
- Quercus robur. (2021eko maiatzaren 24a). *Wikipedia*. https://es.wikipedia.org/w/index.php?title=Quercus_robur&oldid=135780977
- Ritscher, P. (2006). *El jardín de los secretos*. Barcelona: Octaedro.
- Rodríguez Navarro, H., eta García Monge, A. (2009). Asimilación de códigos de género en las actividades del recreo escolar. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 23(1),59-72. Hemendik berreskuratua <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=27418821005>.
- Ruiz, J. A., Moral, E., Llor, B. & Jiménez, J. A. (2018). Influence of Parental Styles and Other Psychosocial Variables on the Development of Externalizing Behaviors in Adolescents: A Systematic Review. *European Journal of Psychology Applied to Legal Context*, 11(1), 9-21.
- Ruiz de Angulo, J. (d.g.). *Cuidados del Árbol de Júpiter (Lagerstroemia indica)*. Agromatic. <https://www.agromatic.es/arb-ol-de-jupiter/>.
- Salas, M. I., eta Vidal-Conti, J. (2020). Orientaciones para crear patios activos en los centros escolares. *Retos*, (38), 745-753.
- Sánchez Chacón, G. (2015). Aprendizaje entre Iguales y Aprendizaje Cooperativo. *Revista Ensayos Pedagógicos*, X(1), 103-123.
- Significados. (2021). *Significado de objetivo*. Hemendik berreskuratua: <https://www.significados.com/objetivo/>.

- Solís, P. (2018). La importancia del juego y sus beneficios en las áreas de desarrollo infantil. *Voces de la educación*, 4(7), 44-51.
- Subirats, M., eta Tomé, A. (2010). *Balones fuera: reconstruir los espacios desde la coeducación*. Bartzelona: Octaedro.
- Vaca, M. (2002). Relatos y reflexiones sobre el tratamiento pedagógico de lo corporal en la educación primaria. Palentzia: Asociación Cultural Cuerpo, Educación y Motricidad.
- Varela, A. (2015). Los juegos populares como herramienta para la convivencia en los recreos. *Revista de Estudios e Investigación en Psicología y Educación*, Vol. Extr.(2), 34-38.

ERANSKINAK

I Eranskina – Eskolak egindako aldaketak



1. Irudia Eskolak planteatutako hobekuntzak



2. Irudia Sugeak eta eskailerak zoru-jolasa



6. Irudia Txoko-lasaia



5. Irudia Rokodromoa




3. Irudia Rayuela olagarroa zoru-jolasa



4. Irudia Txoko-lasaia

II Eranskina – Eskola "planoa"



7. Irudia Gasteizko eskola baten planoak

III Eranskina - Iturria



8. Irudia Ereduzko iturria




9. Irudia Gamarra Parkeko iturria



10. Irudia Gamarra Parkeko iturria

IV Eranskina - Balantza



11. Irudia Ereduzko balantza-tradizionala

V Eranskina – Zirkuituko elementuak




13. Irudia Zirkuitua osatzeko eskalada-horma



12. Irudia Zirkuitua osatzeko eskailera-igarobidea



14. Irudia Zirkuitua osatzeko gurpil zirkuitua



15. Irudia Zirkuitua osatzeko soka-piramidea



16. Irudia Zirkuitua osatzeko enbor-ibilbidea



17. Irudia Zirkuitua osatzeko pasabidea

VI Eranskina – Zuhaitz motak



18. Irudia Lizar loredua (Fraxinus ornus)



19. Irudia Lizar arrunta (*Fraxinus excelsior*)



20. Irudia Lizar arrunta (*Fraxinus excelsior*)



22. *Irudia Astigar arrunta (Acer campestre)*



21. *Irudia Lizar hostotxikia (Fraxinus angustifolia)*



23. *Irudia Astigar zorrotza (Acer platanoides)*



24. *Irudia Hurritza (Corylus avellana)*



25. *Irudia Indimitrea (Lagerstroemia indica)*



26. *Irudia Haritz arrunta (Quercus robur)*



27. *Irudia Haritz kandugabe (Quercus petraea)*



28. *Irudia Gaztainondua (Castanea sativa)*



29. *Irudia Ezki hostotxikia (Tilia cordata)*

VII Eranskina – Sozializatzeko eremua



31. Irudia Borobilean kokatutako enborrak




30. Irudia Talde txikietan multzokatutako enborrak



32. Irudia Paleekin egindako sofak


VIII Eranskina – Eremu naturala



33. Irudia Eremu naturala hobeto ulertzeko planoa

- | | |
|--|------------------------------|
| 1. Lasaitasuna eta kontzentrazioarako esparrua | 5. Balantza-tradizionala |
| 2. Liburutegia | 6. Erabilera anitzeko eremua |
| 3. Iturria | 7. Zirkuitu naturala |
| 4. Ikerketa-mahaia | 8. Sozializatzeko eremua |
| | 9. Etxola |

IX Eranskina – Eremu musikatua





34. Irudia Orkestra jolasean edo dantzari aritzeko zoru-jolasa

X Eranskina – Horma musikatua




35. Irudia Horma musikatuaren eredu bat

XI Eranskina – Material taula


4-5-6 MAILAK – MATERIALAREN KONTROLA					
MATERIALA	2021/01/03	2021/01/04	2021/01/05	2021/01/06	...
	1 Txomin, 4.B 1 Maider, 6. A	1. Mai, 5. D
	2 Irati, 6. A 2 Joseba, 4. A
...
	Izena + Gela ez du materiala bueltatu materiala bueltatu du materiala apurtuta				

36. Irudia Material arduradunek erabiliko duten taula

XII Eranskina – Zoru jokoak



38. Irudia Hiru-marran zoru jokoa



37. Irudia Dametan jolasteko zoru margoa




39. Irudia Oka zoru-jolasa



41. Irudia Zoruko dianak



40. Irudia Twister zoru-jokoa



42. Irudia Zirkuitu eredua




43. Irudia Zirkuitu eredua




45. Irudia Zirkuitu eredua



44. Irudia Borobilean jolasteko marrazkia



47. Irudia Zirkuitu eredua




46. Irudia Ziba batailarako pista

XIII Eranskina – Horma-jokoak




48. Irudia Jolastokiko horman kokatutako arbela



49. Irudia Horma-diana baten eredua

XIV Eranskina – Eskola-patioaren antolaketa berria



50. Irudia Jolastokiaren antolaketa berria, gehitutako eraldaketa guztiekin.

- | | |
|------------------------------------|-----------------------------|
| 1. Futbol eta saskibaloiko kantzak | 9. Zirkuitu ezberdinak |
| 2. Material arduradunen eremua | 10. Ziba batailenzako pista |
| 3. Ping-pong mahaiak | 11. Borobil jolasa |
| 4. Hiru marra jolasa | 12. "Tenis"-zelaia |
| 5. Oka jolasa | 13. Komekokos jolasa |
| 6. Twister jolasa | 14. Zoruko diana |
| 7. Dametan jolasteko "taula" | 15. Horma arbela |
| 8. Partxis jolasa | 16. Horma dianak |

17. Frontoi-txikia

18. Eremu musikatua

19. Eszenatokia

20. Horma musikatua

21. Eremu naturala

22. Eskolak egindako zoru-jolasak
eta txoko-lasaia

23. Rokodromoa